

Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz

IRANTZU EPELDE*

SARRERA

Lapurdiko zati handi bateko hizkerak Nafarroa Beherekoekin lotu izan dira Euskal Dialektologiaren hastapenetatik. Horrek ez gaitu harritu behar, historian zehar oso harreman estua izan dutelako bi lurralde horietako jendeek, eta bestelako indar bateratzaileak ere izan direlako (ik. Zuazo 2000: 55). Lotura hori inola ere dudan jarri gabe, lan honetan Lapurdiko eremu jakin bat izango dut aztergai (hego-ekialdea), eta bazter utziko ditut muga horietatik kanpoko hizkerak.

Lapurdiko mugen barrutian, gutxienez lau hizkera multzo bereizi dituzte orain arteko ikertzaileek: kostaldekoa (tradizioz *kostatarra* deitu izan zaiona), Aturrialdekoa, hego-mendebalekoa eta hego-ekialdekoa. Lehen biak nortasun handikotzat jo dituzte Bonapartek eta honen ondorengoek (Vinson 1907; Gimet 1950; Guiter 1973; Zuazo 1998), eta, aldeak alde, izan da nolabaiteko adostasuna hizkerok haiekin muga egiten duten gainerakoetatik bereizteko: kostaldekoa Euskal Herri erdialdeko euskalkiarekin lotu izan dute; Aturrialdekoa, berriz, Nafarroa Behereko iparraldekoarekin.


Gauza gutxi dakigu beste bi hizkera multzoez: hego-mendebalekoaz, badakigu Bonaparte printzeak Ahetze, Senpere, Sara eta Ainhoarekin batera sartu zituela Urdazubi eta Zugarramurdi herri nafarrak¹, eta badirudi gaur egun

* Euskal Herriko Unibertsitatea.

¹ Jean Saroihandy-k ere antzeko ikuspegia azaldu zuen alderdi honetako hizkeraz, eta are urrunago joan zen, lapurteraren izatea ukatzeraino (1924: 5-6): «Le dialecte de Sare et de toute la vallée de la Nivelle est étroitement apparenté à celui qu'on parle au delà de la frontière espagnole, non seulement à Zugarramurdi et à Urdax, qui sont tournés vers la France, mais aussi à Vera et à Elizondo. Il pourrait être considéré comme une variété du haut-navarrais d'Espagne. Puisque le reste de l'ancien pays de Labourd appartient linguistiquement au bas-navarrais, il en résulte qu'il n'existe pas à proprement parler de dialecte labourdin».

ere elkarrekin sailkatzeko adinako lotura dutela (Montoya 2002), nahiz gazteen hizkera nabarmen ari den urruntzen Ipar Euskal Herrikoetatik. Dena dela, bertatik bertako azterketa sakonik ez da egin eremu honetan, eta ikus-teko dago hizkera honen batasuna eta nortasuna zenbaterainokoa den.


Nik Arrangoitze-Senpere-Ainhoatik ekialdera hasi eta Nafarroa Behereko muga bitarteko eremua izango dut hemen aztergai; laburki esanda, Lapurdiko hego-ekialdea. Baina eremu zabala da hori, eta bi hizkera multzo nagusi bereizi behar dira gutxienez: Lapurdin ez denez izan Nafarroa Beherean edo Zuberoan bezalako tradiziozko lurraldea bailara edo ibarretan banatzeko (ik. Orpustan 1984: 138), nik «Uztaritze aldea» eta «Hazparne aldea edo eskualdea» moduko izenak baliatuko ditut. Lehenean bederatzi herri bildu zituen Bonapartek: Uztaritze, Larresoro, Jatsu, Haltsu, Kanbo, Itsasu, Ezpeleta, Zuraide eta Milafranga, eta *Uztaritzeko hizkera* izendatu zuen eremu honetakoa (ik. hizkera honen hedadura 1. mapan).



1. Mapa. «Uztaritzeko hizkeraren» eremua Bonaparteren arabera. Iturria: Irizar, P., 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, Euskaltzaindia & EHU, Iruñea, 231.or.

Bigarrean, Hazparneko eskualdeko bost herriak sartu zituen –Hazparne, Lekorne, Lekuine, Makea eta Luhuso–, eta Lekornekoa iruditu zitzaion eremu honetako hizkerarik esanguratsuena (ik. *Lekorneko hizkeraren* eremua 2. mapan²).

² Ikus daitekeenez, Lekuine eremutik kanpo dago mapan. Herri horretan xuka erabiltzea erabakigarritzat jo zuen Pedro Irizarrek –mapak haren 1999ko lanetik hartu ditut–, eta ekialdeko behe-nafarreraren barruan sailkatu zuen (1999: 423).



2. Mapa. "Lekorneko hizkeraren" eremua Bonaparteren arabera (Lekuine Kenduta). Iturria: Irizar, P., 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, Euskaltzaindia & EHU, Iruñea, 419.or.

Euskalki berean ikusten zituen Bonapartek Uztaritzeko eta Lekorneko hizkerak, biak «mendebaleko behe-nafarreraren» barruan sartu beharrekoak, Baigorriko eta Aezkoako mintzoekin batera. Hain zuzen, beste bi mintzoak Lapurditik kanpokoak direlako, «Lapurdiako mendebaleko behe-nafarrera» izendatu zuen hego-ekialdeko azpieuskalki hori. Baina eremu hau ez zuen guztiz uniformea ikusten nonbait, bi hizkera multzo nagusi horiek bereizi zituenez gero. Honen harira, garrantzitsua iruditzen zait bi hizkera hauek bereizteko zein alderagai erabili zituen azaltzea. Ezaugarri hauek hartu zituen (1866: 29):

1) Biek dute *-ua* > *-uya* bilakaera mugatzailea hartzean, baina Uztaritzeko hizkerak ez du *-a* morfema galde-perpausetan, eta Hazparnekoak bai.

2) Hazparnen-eta bereizi egiten dira *izan* eta *ukhan* aditz perifrasiatan; Uztaritzen-eta, berriz, oso bakan erabiltzen da *ukhan* horrelakoetan.

Ezaugarri markatzaile horiek gora-behera, ez du ematen nahikoa arrazoi-tuta gelditzen denik bi hizkera bereizte hori, baina gai honen inguruan ez da gehiago sakondu, eta ez da proposamen zehatzik egin. Lehenbiziko begi-kolpean, nabarmentzekoa da Bonapartek azpieuskalki hau lapurteran sartu ez izana. Nolanahi ere, ohartarazi zuen Uztaritzeko hizkera ikusten zuela mendebaleko behe-nafarreraren barruko mintzoetan "la variété la plus rapprochée du labourdin" (Lafon 1980 [1944]: 62).

Pedro Irizarrek ere ildo bereko aipamen bat dakar inguru honetako adizkiak hartuta egin zuen azterketa kontrastiboaren emaitzaz (1981-II: 330): "Las formas verbales empleadas en los pueblos de la variedad de Ustaritz presentan, en general, un matiz marcadamente más labortano que los de la variedad de Mendionde [Lekorne]". Irizar konturatu zen lapurteraren eta mendebaleko behe-nafarreraren arteko mugaren izaera lausoaz, eta pentsatzen zuen Lapurdiko hego-ekialdeko mintzoak ez duela aski nortasun euskalki beregintzat hartzeko, hizkuntza ezaugarri mistoak dituelako (1981-II: 330).

Muturreko iritziak ere izan dira gai honetaz: Henri Guiter-en arabera (1973: 102-103), adibidez, ez dago inolako mugarik lapurteraren eta mendebaleko behe-nafarreraren artean, ezta bi behe-nafarreraren artean ere.

Lapurdiko hizkeron kokaguneaz aipatu nahi dudan azken iritzia Koldo Zuazorena da (2003: 147): berak ez dio, Guiter-ek bezala, Lapurdin eta Nafarroa Beherean barrena batere mugarik ez denik, baina bai aldeak ez direla “euskalki” hitza erabiltzeko bestekoak. “Azpieuskalkiak” ikusten ditu hor, tartean bat hemen aztergai dugun eremukoa, berak *erdigunekoa* deitzen duena. Baina 2003ko lan horren aztergaia euskalkiak eta azpieuskalkiak dira, ez horien barruko hizkerak eta hizkera multzoak.

Gai arazotsua eta sakona da dialektoen arteko mugena, eta, iritziak iritzi, kontua da gaurko egunean argitu gabe jarraitzen duela lapurteraren eta behenafarreraren auziak. Argi azaldu nahi dut ni ez naizela jardungo hemen Lapurdiko hego-ekialdeko hizkera hau zein euskalkitan sailkatu beharra den erabakitzeaz, edo, bestela esan, euskalkien arteko mugaz. Hizkera jakin hauen arteko mugaz eta hartu-eman motaz argi pixka bat ekar baneza banuke aski. Hortaz, soilik eskainiko diot arreta bi mintzo hauen arteko batasuna eta etena erakusteari, eta hizkera bakoitzak berezko dituen ezaugarriak (gehien-gehienetan ez baitira hizkeron bereizgarriak) agerian jartzeari.

1. ALDERAGIAK ETA DATUEN ITURRIA

Gorago Uztaritzeko hizkeraren barrenean bildu ditugun bederatzi herrietako datuak neuk jaso ditut, zuzenean, herri horietako berriemaileen ahotik³. Horrez gain, Gotzon Aurrekoetxeak eta Xarlek Videgainek Hizkuntza Atlaserako eremu honetako bi herritan –Uztaritzen eta Itsasun– bildu zituzten datuak ere erabili ditut. Eremu honetako hizkuntza ezaugarriak ematerakotan Uztaritze eta Larresoroko adibideak agertuko dira gehienetan, bi herri horietan egin dudalako bilketa handiena (Larresoro hartuko dut ardatz).

Herri horietako hizkera Hazparne aldekoarekin alderatzeko, bigarren eremu honetako ezaugarrien berri zehatza beharko genuke, baina, azterketa sakonik ezean, garrantzitsua iruditu zait lehen urratsak bederen egiten hastea, gerora etorriko diren lanei abiaburu bat eskaintzeko, besterik ez bada. Nik lau herri baizik ez ditut aintzat hartuko: Hazparne, Lekorne, Luhuso eta Makea, hain zuzen ekialdera muga egiten dutelako. Lehen hiruretako berriemaile bana hautatu eta geldetegi bidez lortu ditut datuak. Datu horiek *EHHA*-k Hazparnen eta Makean bildutakoekin osatu ditut. Herri hauekin batera sartzekoak izango dira, segur aski, Lekuine eta Nafarroa Behereko Aiherra ere, baina horiek iker-eremuan sartzeak ezinbestean eramango gintuzke Nafarroa Behereko hizkerekin duten lotura aztertzeraz, eta horrek gainditu egiten du lanaren hasieran jarri dugun muga.

Ordea, zenbait ezaugarritan egoki ikusi dut mendebaleragoko herri batzuen aipamenak egitea, zehazki Senpere eta Arrangoitzekoak, aztergai dudan eremuarekin ezkeraldera muga egiten dutelako. Horko berri ez dut nik zuzenean jaso, *EHHA*-ren grabazioak baliatu ditut (Lapurdiko hamabost herritan egina dute bilduma, Senpere eta Arrangoitze barne).

³ Nire esker ona azaldu nahi diet laguntzaile izan ditudan lapurtar berriemaileei, bereziki Larresoro-Ñañain bordako familiari, Uztaritze-Sorthako Solange Darlas andereari eta Hazparne-Iriberiako Janbattit Dirassar jaunari. Baita Koldo Zuazo irakasleari ere, lan honen lehen zirriborroa irakurri eta ohar ezin interesgarriagoak eginagatik.

Horrenbestez, bi hizkera hauek batera dituzten ezaugarriak nahiz hizkera bakoitzak berezko dituenak erakutsiko ditut jarraian, eta, ezaugarri horiek oso gutxitan baitira eskusiboak (beste inongo hizkeratan aurkitzen ez ditugunak), horietako bakoitzaren hedadura zehazten ere ahaleginduko naiz⁴.

Herri izenen laburdura hauek erabiliko ditut adibideetan: *Lar.* (Larresoro), *Uzt.* (Uztaritze), *Ja.* (Jatsu), *Hal.* (Haltsu), *Kan.* (Kanbo), *Its.* (Itsasu), *Ezp.* (Ezpeleta), *Zur.* (Zuraide), *Mil.* (Milafranga), *Hazp.* (Hazparne), *Lek.* (Lekorne), *Mak.* (Makea), *Luh.* (Luhuso), *Arr.* (Arrangoitze) eta *Senp.* (Senpere).

2. LARRESOROKO HIZKERAREN ETA HAZPARNEKOAREN ARTEKO ALDERAKETA

2.1. Fonologia

2.1.1. Bokalak

Bokalismoaren alorreko etenak dira agian nabarmenenak, hiztunak bereaiek konturatzen dira gertakari fonologiko batzuetan ez dutela jokabide bera. Xehetasunak geroko utziz, bilakaera desberdina izan dute [*u + a*] eta [*u + e*] hiatook (Larresoron *uia*, *ui* eta Hazparnen *üa*, *ii*), *ie* hiatook (Larresoron *ie* eta Hazparnen *ii & i*) eta *ai* diptongoak (Larresoron *ei* eta Hazparnen *ei & i*).

2.1.1.1. [*u + a*] elkarketa

[*u + a*] elkartzean *uia* da gehienetan emaitza Larresoron, Uztaritzen, Haltsun eta Ezpeletan. Itsasun *üa* nagusitzen da, eta baita Jatsun eta Kanbon ere. Zuraiden horrez gain *ua* ere bada, silaba bakarreko hitzetan izan ezik (horietan *uia* egiten dute eremu guztian: *suia*, *tüa*...). Beste aukera bat ere bada: *üia*, Milafrangan erabiltzen dena.

Ezagun duenez, eremu hau ez da erabat homogenea *u + a* elkarketaren emaitzari dagokionez: Larresoron eta honekin muga egiten duten herri batzuetan (Uztaritzen, Ezpeletan eta Haltsun) bokal epentetikoa erabiltzen da nagusiki; Jatsuk, Kanbok eta batez ere Itsasuk Hazparne aldearekin bat egiten dute (*üa*), eta esango nuke Milafrangako *üia* ere hurbilago dagoela eremu horretako ebakeratik, Larresoron baino palatalizatuago ebakitzen dutelako. Bestalde, Senpere-Ainhoa inguruko eragina sumatzen da Zuraiden (*ua*), nahiz eta hemen *üa* ere ez izan ezezaguna.

Hazparnen, Makean, Lekornen eta Luhuson *üa* bukaera dago *u*-z bukatzen diren hitzetan: *esküa*, *burüa*, *mamiüa*, *negüa*, *irrisküa* (Hazp.), *soiniüa*, *sagüa*, *miiküa*, *opeatiüa*, *harritiüa*, *akitüa* (Lek.), *enztalatiüak*, *penatiüa*, *kexatiüa*, *sentsüa* (Mak.), *errespetüan*, *ateatiüa*, *porriüa* (Luh.)... Silaba bakarrekoetan ere *üa* egiten da Hazparne aldean: *bliüa*, *süa* (*Jondonaaneko süa*), *tüa*... Hazparneko berriemaileak zioskun adin bateko jendeak bakarrik eusten diola ahoskera horri, eta, adibidez, ikastolan ikasi duen gazteak errazago esango lukeela *eskua*, euskara batuaren bidetik.

⁴ Koldo Zuazoren *Euskalkiak. Herriaren lekukoak* (2003) liburua hartuko dut oinarri, euskalkien eta hauen eremua gainditzen duten ezaugarri markatzaileen hedaduraren berri izateko lanabes egokia delako.

Hemen *ü* dieresidunaz markatu dudana soinu hori ez da izango, segur asko, Zuberoan-eta bezain palatalizatua (hau da, ez /y/ bezain palatalizatua). Bonaparteren datuak hartzen baditugu, ikusiko dugu hiru ebakera eman zituela Hazparneko eskualdeko bost herrietarako: *üya*, *üa* eta *uya* (1991: 242, 2. oin-oharra). Baina kontuan hartzekoa da Bonapartek berak eskuizkribu batean (1866: 5) *uya-üya-üa* ahoskera hirukoitza proposatu zuela. Berak aditu eta *ü* bidez adierazi zuen hots hori “entre l’*u* et l’*ou*” ikusten zuen (1866: 29), eta, berez Aezkoa bailarakotzat bazeukan ere⁵, inoiz Nafarroa Garaian eta Lapurdiko herri batzuetan ere entzun zitekeela zioen (mendebaleko behe-nafarreraren eremuko herrietan).

Esan behar dut Hazparneko berriemaileari noizbait entzun diodala (*ua* >) *ia* erabateko palatalizazioa hizketa laxoan, baina ez da joera nagusia. Bi mutur horien arteko hotsak nagusitzen dira bi eremuetan, batean epentesia duena eta bestean /y/-rantz jotzen duena. Garbi dago zenbat eta ekialderago joan orduan eta palatalizatze joera handiagoa dagoela. Zuberoak, Erronkariko iparraldeak eta Nafarroa Behereak osatzen dute ezaugarri honen eremua.

Hiztunak beraiek konturatzen dira gertakari honek eremuak edo herriak bereizteko balio duela. Lekukotasun hau Jean Hiriart-Urruti gaztearena da (hazpandarra zen Hiriart-Urruti, eta, Irizarrek (1999: 485) eskaturik, bere jaioterriko indikatiboko adizkien zerrenda prestatu zuen; zerrendarekin batera bidali zion ohar hau): “Hazparneko adizkiez, ohar bakar bat egingen dut: *ninduan*, *zuan*, etab. idatzi dut, eta ez *ninduian*, *zuian*, edo holako zerbait; Hazparnen ez baitugu, Uztaritzen bezala, *ui* erraiten, bainan *ü* (frantsesezko *u* edo xubertarren (sic) *ü* bezalatsu). Xuxenago izanen zen behar bada *nindüan*, *züan*..., idaztea”. Hiriart-Urrutik frantsesezko soinuaren tankera hartzen zion hots horri, eta uste berekoa zen Asteteren dotrina Hazparneko euskarara itzuli zuena ere (Pagola et alii 1999: 213): “La même terminaison [-*ua*-z ari da] se prononce *ua* (comme en français) quand le mot sans la désinence est terminé en *u*. Ex: *Ceru*, *cerua*; *buru*, *burua*”.

2.1.1.2. [u + e] elkarketa

U eta *e* bokalak elkartzearen emaitza *ui* da Larresoron eta aldameneko herrietan. *U* hori pixka bat palatalizatze joera dago *züik*, *nüin* bezalakoetan, eta are gehiago *-zue* bukaera duten adizkietan: *düzüi*, *diozüi*... Berriz ere esan behar da ez dela *ü* garbia hots hori, *u* eta *ü*-ren tarteko zerbait baizik, eta, gainera, ez da beti gertatzen, *züik* bezalakoak ere ohikoak dira eta. Uztaritze aldeko bereizgarri bakarrenetakoa izango da hau segur asko. Hazparneko berriemaileak esan zidan horregatik bakarrik bereiziko lukeela berak uztariztar baten mintzoa, eta hazpandarrak lehen trufatu egiten zirela uztariztarrez, Uztaritzen *ue* elkarketa *ui* (eta batzuetan *üi*) ahoskatzen dutelako: *züin* & *züin* ‘zuen / bigarren pertsona pluraleko edute genitiboa’, *düzui* & *düzüi* ‘düzue’, *züik* & *züik* ‘züek’...

Hazparne aldean bilakaera bat gehiago gertatu da, eta *züik* ‘züek’ bezalakoak arruntak dira, hau da, erabateko palatalizatzeaz gain asimilazioa ere badutenak (*züek* > *züik* > *züik* bilakatuz). *Ue* bokal elkarketa dagoen guztietan

⁵ Gaurko aezkeraz “oso kasu bakanetan” gertatzen dela dio Iñaki Caminok (1997: 219): *kontüak*, *ordüa*...

gertatzen da, adizkietan bereziki: *zí(i)n* ‘zuen / bigarren pertsona pluraleko edute genitibo’ (Hazp., Mak., Lek.), *ní(i)n* ‘nuen’ (Hazp., Mak.), *nitiin* ‘nituen’ (Lek.), *zír* ‘zuei’ (Hazp.), *ginitiin* ‘genituen’ (Lek.), *baziin* ‘bazuen’ (Lek.), *giniilaik* ‘genuelarik’ (Mak.), *giniin* ‘genuen’ (Mak.), *zitin* ‘zituen’, *ba-di(i)la* ‘baduela’, *zintin* ‘zintuen’ (Luh.)...

U-ren palatalizazioa goian aipatutako [*u + a*] nahiz [*u + e*] inguruneetan besterik ez da gertatzen. Euskara nafarrean ohikoa den etorkizuneko *-tiko* bukaera *-tuko* da Uztaritze aldean nahiz Hazparne aldean, azken honetan inoiz *-tiko* aditu badut ere (hizketa laxoan).

2.1.1.3. *Ie* hiatoaren bokal asimilaziorik ez da gertatzen Larresoro aldean; Hazparne aldean, berriz, oso arrunta da *ie > ii* (edo *i* soila) bilakaera: *ziin* ‘ziren’ (Hazp., Lek., Mak., Luh.), *horiik* (Hazp., Lek.), *bizi diino* ‘bizi direno’ (Lek.), *din tokietan* ‘diren tokietan’ (Mak.), *hor din yendiak* ‘hor diren jendeak’ (Luh.)...

2.1.1.4. Sinkopa ez da eremu hauetako (ez Larresoro aldeko, ez Hazparne aldeko) ezaugarri berezkoa, nahiz eta zenbait hitz sinkopatu badiren (lexikalizatuta gelditu direnak). Adibidez, *pástu* eta *pásten* arruntak dira hizketa ari-nean ni ibili naizen bederatzi herrietan (*pasátu* eta *pasátzen* ere bai), eta Uztaritzen, Jatsun, Haltsun-eta ohikoa da *artzen* ‘aritzen’ (Larresoron *aitzen*). Aitzitik, *erten* ‘erraten’ ez da erabiltzen ez Uztaritzen, ez Larresoron, ez Jatsun eta ez Haltsun; *erraiten* erabiltzen da herri guztietan, Itsasun izan ezik. Behin Itsasuz gero arrunta da *erten* (Hazparden, adibidez, *erréiten* & *érlen*). *Ertóra* ere lexikalizatuta gelditu da eta bi eremuetan erabiltzen da (Makean, adibidez, *yanaartor* ‘jaun erretorea’ da).

2.1.1.5. Aferesirik ez da gertatzen Larresoro aldean, ezta Hazparne aldean ere. Adibide hauetan *záutu*-ren eratorriak azaltzen dira, baina nik *ezáutu* entzun dut beti: *zàutzen tziin* (Makea, *EDEL* II: 236. etn.) eta *zàutúia izan dá / ezáutuiya zén* Aiherran (*EDEL* II: 253. etn.).

2.1.1.6. Sudurkari aurrean *o > u* bilakatzen den adibideak badira Larresororekin batera dagoen eremu guztian, nahiz eta ez izan gertakari orokorra. Hitz batzuetan beti gertatzen da ixtea (eremu osoan): *arrúnt*, *trúnko* ‘tronko [enbor]’, *hunát*, *hunén*, *húntan* erakusleetan eta *nun*, *núngo*, *núndik* adizlagunetan... Beste batzuetan bitasuna dago: *óntsa* & *úntsa*, *ondár* & *undár*, *papillón* & *papillún* (fr. *papillon*), *ongárri* & *ungárri*, *untzí* & *ontzí*... Albokari aurrean ere gertatzen da hitz honetan: *pullíta*, *pullíki*, *pullikitu*... Baina bilakaera ez da erabatekoa (eremu osoan): *on*, *gizón*, *ondóan*, *konkór*...

Hazparden, Lekornen-eta ixtea da joera nagusia, eta goikoak bezalako parerik ez dago, nire berriemaileen arabera: *úntsa*, *undár*, *papillúna*, *untzí* eta tankerakoak aukera bakartzat eman dizkirate.

Ipar Euskal Herri osoan betetzen da gertakari hau, baina ez, nonbait, toki guztietan indar berarekin.

2.1.1.7. Larresoron eta aldameneko herrietan *ai* diptongoa bilakatu egiten da hitz barruan, eta *ei* izaten da emaitza: *zombeit*, *nunbeit*, *aneia* ‘anaia’, kausazko *beit*-aurrizkia, *-gei* atzizkia... Baina ez da ezinezkoa *ai* ere entzutea hitz horietan.

Hazparnen, Makean eta Lekornen *ei* da zabalduena, baina horren ondoran *i* monooptongatua (*ei* > *ii* > *i*) ere erabiltzen da. Adibide hauek Hazparnekoak dira: *biséia* ‘bisaia, aurpegia’, *eierazína* ‘eiherazaina’, *géin* ‘gain’, *zombéit* & *zombít*, *nik ez bitákit* ‘nik ez baitakit’, *nunbéit* & *nunbít*... Horiakin batera ipini beharrekoak dira *-gei* atzizkia daramaten hitz eratorriak: *senargei*, *apezgei*... Bestalde, *anéa* aldaera dugu eremu honetan, baina hitz elkartu gisa hiru aldaera ibiltzen omen dira: *anai-arrebak*, *anei-arrebak* eta *anearrebak*.

2.1.1.8. *Izan*-en eta **edin*-en formetako nahiz NOR-NORK adizkietako *ai* > *i* soilteza orokorra da ibili naizen herri guztietan (eta ekialde osoan): *niz* ‘naiz’, *biz* ‘haiz’, *zítut* ‘zaitut’, *zítu* ‘zaitu’, *giuzte* ‘gaituzte’, *ziuztet* ‘zaituztet’... Kontuan hartuta Zuraiden ere nagusi dela, esango nuke muga justu haren hego-mendebaleko herrietan dagoela: Ainhoan eta Senperen.

2.1.1.9. NOR-NORK saileko adizkietan oro har monooptongatu egiten da *au* diptongoa: *nu* ‘nau’, *hu* ‘hau’, *nute* ‘naute’, *huu* ‘haugu’... Ezaugarri hau batera dute bi eremuek, baina hori baino hedadura zabalagoa du (ekialde osokoa da). Lapurdin, Senperen-Ainhoan egongo da muga berriz ere, Zuraiden nagusiki forma soilduak ditugunez gero (Irizar 1997: 90-91): *nuzu* (Zur.) / *nauzu* (Senp.), *huu* (Zur.) / *haugu* (Senp.), *nute* (Zur.) / *naute* (Senp.)...

2.1.1.10. NOR-NORI sailean *-au-* erroa (orok. *-ai-*) erabiltzen da Larresoron-eta: *zaut* ‘zait’, *zauzkit* ‘zaizkit’... Datiboa bigarren pertsona denean bitasuna dagoela ikusi dut: *zautzu* & *zaitzu* ‘zaizu’, *zauzkitzu* & *zaizkitzu* ‘zaizkizu’, *zautzui* & *zaitzui* ‘zaizue’, *zauzkitzui* & *zaizkitzui* ‘zaizkizue’. Baina 1994an Marijane Minaberrik eta Koldo Artolak egin zuten bilketan (Irizar 1999: 252) horrelako pare gehiago dago: *zauku* & *zaiku*, *zauzkit* & *zaizkit*...

Hazparne aldean *-au-* da aukera bakarra: *zaut* & *daut* ‘zait’, *zautzu* & *dautzu* ‘zaizu’, *zauku* & *dauku* ‘zaigu’, *zautzii(te)* & *dautzii* ‘zaizue’...

2.1.1.11. *E-z* eta *o-z* bukatzen diren hitzetan, mugatzailea hartzen dutenean, *-ja* eta *-wa* gertatzen da batzuetan Larresoron eta aldameneko herrietan: *sémja* ‘semea’, *baátzja* ‘baratzea’, *pérdja* ‘berdea’, *hértzja* ‘hestea’, *sáltzja* ‘saltiesa’ eta *órrwa* ‘orroa’, *ótswa* ‘otsoa’, *úsua* ‘usoa’. Goranzko diptongoak badira eta hitz askotan agertzen dira, baina haien ebakera ez da beti garbi-garbia (hau da, [és.nja] / [mu.tí.kwa]-ren modukoa) eta batzuetan hiatoa ebakitzen da. Disimilaziorik gabeko *-ea* eta *-oa* ere entzun daitezke, baina joera nagusia ixtea da.

Hazparnen, Makean eta Lekornen ere ixtea eta goranzko diptongoa izaten da joera nagusia erdiko bokalez bukatzen diren hitzei bokala eranstea. Adibide hauek Lekornekoak dira: *xahákwa* ‘zahatoa’, *lástwa* ‘lastoa’, *ótja* ‘otea’, *úrdja* ‘urdea’, *kálmja* (fr. *calme*) ‘lasaia, barea’, *báhja* ‘bahea’, *sémja* ‘semea’, *hórkwa* ‘horkoa’...

Asteteren dotrina Hazparneko hizkerara itzuli zuenak ikur berezi bat (“u” gisako zeinu txiki bat) jarri zuen *u* bokalaren gainean, goranzko diptongoa ahoskatzen zela adierazteko. Ohar hau ere idatzi zuen (Pagola et alii: 213): “La terminaison *ua* se prononce *oua* [*u*-ren gainean delako *u* txiki hori du] quand le mot sans la désinence est terminé en *o*: *Jinco*, *Jincua* [*u*-ren gainean zeinu bera du]; *lagnu*, *lagnua* [zeinuaz kasu honetan ere]”. Uztaritzeko bertsioren egileak idatzi zuen oharrean ere garbi dago *e* eta *o* ez direla bokalikoko-

ak (Pagola et alii: 186): “Les noms en *oa*, se contractent en *ua*; ceux en *ea*, se contractent en *ia*. Ex. *Leihoa*, *leihua*. *Etchea*, *etchia*. Dans ces mots contractés *oua* et *ia* se prononcent brièvement comme ne faisant qu’une seule syllabe”.

2.1.1.12. Bokal arteko kontsonanteak (batez ere *b*, *d*, *g*, *r* eta *n*) galtzearen ondorioz, bokal luzeak edo geminatuak sortzen dira. Hitz barruan nahiz bi hitzen mugan gerta daiteke, eta oso arrunta da bokalak tinbre berekoak direnean: *baákit* ‘badakit’, *pittáat* ‘pitta bat’, *elgarretaatu* ‘elkarretaratu’, *maásina* ‘magasina [denda]’, *beén* ‘beren’, *treésatu* ‘trebesatu, zeharkatu’, *iilki* ‘ibilki’, *berróoi* ‘berrogei’, *buúia* ‘burua’, *duu* ‘dugu’ (Uzt.)... Gertakari hau bi eremuetan betetzen da, eta sarritan gertatzen da.

Bokalak tinbre desberdinekoak direnean ere gal daiteke kontsonantea, hiato bigarrenkarietan asimilazioa gertatzen delako: *suiaan* ‘suaren’, *hiláate* ‘hilabete’, *gíilka* ‘gibelka’, *hoóki* ‘hobeki’, (*h*)*arrootsa* ‘harrabotsa’, *malúus* ‘maluros’ (Uzt.)... Nahasia da bilakaera honen eremua: arrunta da Hazparne aldean, baina Uztaritzen ere betetzen da, sistemaz ez bada ere. Deklinabide kasu batzuetan bai, sistematikoa da Uztaritzen, Milafrangan, Jatsun eta Haltsun ere; adibidez, *-áan* da edute genitibo singularraren atzizkia, Hazparden, Makean eta Lekornen bezala, eta horren eratorriak ere asimilazior ebakitzen dira beti: *senarraakin*, *apezaantzat*, *traktorraandako*, *amaangatik*... Geroaldiko *-en* markarekin ere gertatzen da *-n* bukaera duten aditz nagusietan: *emáan* ‘emanen’, *erráan* ‘erranen’, *izáan* ‘izanen’, *yóan* ‘joanen’, *yíin* ‘jinen’... Larresoron, Ezpeletan, Zuraiden eta Itsasun, berriz, *-ain* bukaera erabiltzen da edute genitiboan zein geroaldian (*-an* bukaera duten aditz nagusietan), beraz horietan ez dago asimilaziorik. Kanbon biak erabiltzen dira, *-ain* eta *-aan*. *-Aren* > *-ain* bilakaera nafar-lapurarraren eremuan ez ezik euskara nafarrarenean ere betetzen da.

Hazparden, Makean eta Lekornen kasu gehiagotan betetzen da asimilazioa bokalak tinbre berekoak ez direnean: *dóo* ‘dago’, *noóna* ‘norena’, *zoón* ‘zagon (zegoen)’, *oóno* ‘oraino’, *hoókin* ‘hauekin’... Gainera, eskualde honetan kontsonante galerarik gabe gertatzen diren geminatuak ere badira, *ui* > *ii* asimilazioaren ondorioz sortutakoak (ik. 2.1.1.2. azpiatala): *diína* ‘duena’, *ziin* ‘zuen’, *ginitiin* ‘genituen’, *niin* ‘nuen’...

2.1.1.13. Berez zubererakoa (eta lehen erronkarierakoa) da *i - ü* > *ü - ü* asimilazioa, baina Lapurdiko ekialde guztian (Uztaritze barne) *bulúzi* ‘biluzi’ aldaeran bada. Uste dut hitz horretan bakarrik betetzen dela, beste hauetan ez dago eta (Lar., Hazp.): *aingéru*, *gatélu* ‘katilua’, *idúu* ‘iduri’, *itzúli*, *il(h)ún*...

2.1.2. Kontsonanteak

2.1.2.1. Hasperena Lapurdiko ekialde osoan erabiltzen da, baina ematen du Hazparne aldean Uztaritze aldean baino hitz gehiagotan ahoskatzen dela. Hazparneko berriemaileak esan zidanez, “itsuski” sartzen zuten lehen hasperena (heletarrek burla egiten omen zieten hazpandarrei hitz askotan ahoskatzen dutelako), eta adinekoek oraindik hala egiten omen dute, hainbat inguruetan gainera (hitz hasieran, barruan, herskari hasperendunetan...). Larresoro aldean ere adineko jendearen jardunean entzun daiteke errazen, eta horietan ere ez beti. Esan daiteke hitz jakin batzuetan ia beti ahoskatzen dela:

hil, háat ‘harat’, *hor, harri, hau-hoi-hua* erakusleak, *harritu, hoinbertze / hoinbeste* ‘horrenbeste’, *hari* ‘haria’... Ez da arraroa pertsona berak hitz berbera hasperenez nahiz batere hasperenik gabe ebakitzea. Ingurune fonologikoak eta hizketaren bizkortasunak zerikusi handia dute honetan.

Hitz jakin batzuetan dardarkari bakunaren ordeaz agertzen da: *ihétsi* ‘irentsi’, *bihámun* ‘biharamun’ (Uzt.).

Larresoro aldean badira herskari hasperendunak, baina gutxitan entzun ditut (Itsasuko berriemaileari behin baino gehiagotan), eta adin handiko pertsonetan bakarrik. Gainera, hizketaren lastertasunaren arabera dira berriz hautemateko modukoak. Adibide hauek Itsasukoak dira: *othói, urthé, othóitz, ukhán, khéa, aphéz*. Are zailagoa da kontsonante ozen ondotik aditza: *bel(h)arra*. Baina herri gehienetan (Uzt., Lar., Ezp., Zur. etab.) ez dute hasperenik egiten ingurune horretan. Diptongoaren edo diptongo zenaren ondoko adibideak ere badira (Hazparnen, Makean eta Lekornen ere hala ebakitzen dira): *oihál, oihán, aihén*. Beste adibide honetan galdu egin da diptongoaren osagai silabikoa: *i(h)ára* ‘eihera’ (Uzt., Mil.) (Hazparnen *eihéa*).

Hazparneko eskualdean ere badira herskari hasperendunak, baina ez da gertakari sistematikoa, eta hasperenez ebakitzen direnean arinki ahoskatzen dira. Hazparneko berriemaileak zioskun zenbaitetan ez dela jakiten baden ala ez den: *urk^hátu, ak^húlu, k^héxu, mak^híla, k^héa, o^hói, i^hó, o^hóitz, ap^héza...* Gauza bera esan zidan ozen ondoko hasperenez: *bel(h)ár, el(h)é...*

Hasperena izateak bokal bat-egitea edo diptongatzea galarazi du zenbait aldiz: *behár, lehén, lehértu, mahí* ‘mahai’, *behí, nahási, xahútu...*

2.1.2.2. Jokabide berbera dute bi eremuek [j]-ren ahoskerari dagokionez, bietan ebakitzen da sabaiko herskari ahostuna euskal jatorriko hitzetan: *yábe, yakín, yan, yo, yokátu, yósi, yostetan, yoán, yáun, Yínko...* Mailegutan ebakera hauek erabiltzen dira: *yénde* bezalako mailegu zaharretan *y* [j], *xéfa* edota *kexátu* bezalakoetan *x* [ʒ], eta mailegu berriagoetan sabaiaurreko frikari ahostuna *ʒ* [ʒ] (frantsesezko ahoskera bera): [ʒ] *urnála* (fr. *journal*) ‘egunkaria’, [ʒ] *antíja* (fr. *gentil*), *xomá[ʒ]ian* (fr. *chômeage*) ‘langabezian’, *xofá[ʒ]a* (fr. *chauffage*) ‘berogailua’...

2.1.2.3. Bai Larresoro aldean eta bai Hazparne aldean asimilazio bustidurarik gabeko formak nagusitzen dira, ingurune guztietan:

- [inV] > [inV]: *urína, berdín-berdína, mína, burdína, ína* ‘egina’... Salbuespena: *gríñátu* (gask. *grinba*) ‘kezkatu, arduratu’ (Lar., Hazp.).
- [ai, ei, oi diptongoak + n + V] > [ai, ei, oi diptongoak + n + V]: *arráina, artzáina, usáina, ordáina, galdáin & galdéin, gáin & géin, báinan & béinan* ‘baina, baizik’, *béine* ‘behin ere’, *óinez, pezóina* ‘hesia’, *soinuia* (Uzt.) / *soiniia* (Hazp.), *sasóina...*
- [ai, ei, oi diptongoak + n + #] > [ai, ei, oi diptongoak + n + #]: *arráin, deséin* ‘desegin’, *garratóin* ‘arratoia’...
- [in#] > [in#]: *berdín, min, adín, in* ‘egin’...
- [ilV] > [ilV]: *híla, míla, hilárriak, ílja* ‘ilea’, *apíla* ‘apirila’, *emáilia* ‘emailea’, *ixtíla* ‘lokatza; putzua’...
- [ai, ei, oi diptongoak + l + V] > [ai, ei, oi diptongoak + l + V]: *záila, batáila, ttorttóila* (fr. *tourterelle*) ‘usapala’, *otsáila...*

- [itV] > [itV]: *itúrri*, *pullíta*, *béita* ‘bait + da’ (Lar.) / *béita* & *bíta* (Hazp.), *it(h)ó*, *nitúin* (Lar.) / *nitiin* ‘nituen’ (Hazp.)...

Maileguetan badira despalatalizazioa erakusten duten adibideak: *botóila*, *gaztáina* (Lar.) / *gazténa* (Hazp.), *máinu*, *koináta*, *seinalatu*, *teilatuia* (Lar.) / *teilatiia* (Hazp.), *oiló* eta honen eratorriak: *oiláteia* (Lar.) / *oilatéa* (Hazp.), *oilárra*... Baina palatalizazioari eutsi dio beste honek: *españolá*.

Bai *i* bokalak eragindako bustidurarik eza eta bai despalatalizazioa nafar-lapurtarraren eremu osoan betetzen dira.

2.1.2.4. Dardarkari anizkunaren ebakera ubularea [R] da zabalduena Lapurdiko ekialde osoan (eta Ipar Euskal Herri osoan), frantsesaren ahoskera bera. Dena dela, Kanboko, Lekorneko eta Ezpeletako berriemailek ez dute ubularea ahoskatzen. Horiek gaztelaniaren tankerako dardarkariak ahoskatzten dituzte, eta frantsesez ari direnean ere ez dute ubularea ebakitzen (nabarmendu behar da denak direla adin handikoak). Hasieran pentsatzen nuen hitzun horien gauza izango zela, idiolekto kontua, baina, *EHHA*-ren grabazioak entzuterakoan, ohartu naiz Makeako lekukoak ere (Martin Olhartz jaunak) ez duela ubularea ebakitzen. Hitzunok duten ezaugarri komuna adin handikoak izatea da.

2.1.2.5. Txistukarietan, bi eremuetan aurkitzen dugu hitz hasieran txistukari igurzakaria (Hegoaldeko hizkeretan eta sarri Zuberoan txetxekaria ebakitzen dena): *xakúrra*, *xoría*, *xapéla*, *xerria*, *xítwa* ‘txitoa’, *xingárria*, *ximíxta*, *xilíntxa* ‘txilina’ (Lar., Hazp.)... Maileguetan beste horrenbeste gertatzen da: *xufúrria* & *xoférra* (fr. *chauffeur*) ‘gidaria’, *Xína* (fr. *Chine*) ‘Txina’, *xántza* (fr. *chance*) ‘suerte’, *xokoleta* (fr. *chocolat*), *xífrja* (fr. *chiffre*) ‘zifra’, *xomáza* (fr. *chômage*) ‘langabezia’, *xarriwa* ‘erosketak egiteko erabiltzen den orgatxoa’ (fr. *chariot*), *xapítwa* (fr. *chapiteau*) ‘estalkia’, *xarkutiera* (fr. *charcutier*), *xékja* (fr. *chèque*) ‘txekea’, *xatóa* (Lar.) / *xátwa* (Hazp.) ‘jauregia’ (fr. *château*), *ximiñona* (fr. *cheminée*) (Uzt.) / *ximinia* (Hazp.) ‘tximinia’, *xanpuina* (fr. *shampooing*) ‘xanpua’... Nafar-lapurtarraren eremu osoan betetzen da ezaugarri hau.

Salbuespen bakarra *txar* / *tzar* parela dela uste dut: lehena markatu gabea da (‘ona ez dena’) eta bigarrena markatua (‘txarra, gaiztoa’). Hazparnen eta Lekornen erabiltzen dira *bitxi* eta *bitzi* ere, lehena neutroa (‘ohikoa ez dena’) eta bigarrena markatua (‘arraroa, mesfidantza sorrarazten duena’). Luhusoko berriemaileak ez zuen *bitzi*-ren berririk.

2.1.2.6. Aditz nagusiari geroaldiko atzizkia ipintzean, bokal arteko *n* galtezko joera handia dago eremu guztian, baina ez da sistematikoa. Ikusi dugu bilakaeraren emaitza ez dela berbera herri guztietan: *erráin* (Lar., Zur. Its., Ezp.) / *erráan* ‘erranen’ (Uzt., Mil., Ja., Hal., Hazp., Mak., Lek., Luh.), *emáin* / *emáan* ‘emanen’, *yoáin* / *yoáan* ‘joanen; eramanen’, *yíin* ‘jinen’...

2.1.2.7. Euskara nafarrean bezala, Lapurdiko ekialde osoan gorde da *rtz* kontsonante multzoa, baina *st* ere erabiltzen da. Hitz hauetan bitasuna ikusten da: *bértze* & *béste*, *bost* & *bortz*, *urtxo* & *uso*. Baina beste hauetan *rtz* nagusitu da: *ortzeun* ‘osteguna’, *ortziale* ‘ostirala’, *ortzadar* eta (h)ertze ‘hestea’.

2.1.3. Azentua

Oro har, azentuera bera da Larresoron eta honekin batera ezarri izan den hizkuntza eremu osoan, eta hortik Hazparneko eskualdera ere ez dut jauzirik sumatu (Hazparneko, Makeako, Lekorneko eta Luhusoko azentueran behintzat). Eremu oso horretan azentua ez da bereizgarria, ez du balio hitzak edo gramatika kategoriak bereizteko. Azentuak bereizten dituen hiru hitz pare bakarrik aurkitu ditut, hirurak lexikoaren alorreko bereizketa erakusten dutenak (gramatikaren alorreko ez dut aurkitu):

lo.rí.a	‘poz, atsegin handia’	/	ló.ria	‘lorea’
sa.rí.a		/	sá.ria	‘arrainak (...) harrapatzekoa’
al.dí.a	‘txanda’	/	ál.dia	‘aldea’

Goiko adibideetan, azken aurreko silaban dago azentua, baina ezkerreko zutabeko hitzek eta eskuineko zutabekoek ez dute silaba kopuru bera. Kontua da eskuineko zutabeko adibideetan goranzko diptongoa sortu dela: oinarriaren bukaeran erdiko bokala zegoen hiru kasuetan (*lore, sare, alde*), eta mugatzailea hartzean diptongoa sortu da. Hori dela eta, aurreko silabara pasatu da azentua. Goranzko diptongoen sailean ikusi dugunez, erdiko bokal biek gerta daiteke hori (nahiz eta ez izan sistematikoa): ad. /gako-a/ *gákua* [gá.kwa]. Bonaparteren eskariz herriz herri egindako galdeketen erantzunean ere badira gertakari honen adibideak; Basusarrikoan, adibidez, *sémia, ótsua, óilua* eta *láñua* azaltzen da azpimarrarekin, eta pentsatzekoa da hor goranzko diptongoa adierazten duela.

Ezkerreko zutabeko adibideak hartzen baditugu, ikusiko dugu goranzko diptongorik ez dela sortu, eta, ondorioz, silaba kopurua ez dela aldatu. Arrazoia da oinarriaren bukaeran goiko bokala dagoela (kasu hauetan *i*, baina *u*-rekin berdin gertatzen da): /buru-a/ *bu.rú.ia*. Horrenbestez, argi dago zein den araua: oinarria erdiko bokalez bukatzen bada goranzko diptongoa sor daiteke (ez da sistematikoa, hizketaren lastertasunaren arabera baizik). Oinarria goiko bokalez bukatzen bada, berriz, hiatoa gelditzen da (sistemaz gertatzen da).

Hazparnen, Makean, Lekornen eta Luhuson ere betetzen da arau hau: *ó-tja* ‘otea’ / *be-rrí-a*, *lás-twa* ‘lastoa’ / *tin-dü-a* ‘tindatzeko erabiltzen den koloregia’. Honelako adibideak (kontrastea erakusten dutenak) bildu zituzten Gamindek eta Salaberriak Ezpeletan, Lekornen eta Makean (1997): /suge-a/ *sú-gja* vs. /logi-a/ *ogía*.

Baina Hazparne ondoan dago Aiherra, Nafarroa Behereko mugen barrutian, eta ditugun datuen arabera han ez da bereizketarik egiten oinarriaren bukaerako bokalaren arabera (Hualde 1997: 107): goiko bokalez bukatzen direnetan ere goranzko diptongoa sortzen da. Beraz, erdiko bokalek ez ezik goiko bokalek ere galdu egiten dute izaera silabikoa: *bé-gja* ‘begia’, *ár-dja* ‘ardia’, *xú-rja* ‘zuria’ eta *bú-rja* ‘burua’, *és-kja* ‘eskua’, *pó-rrja* ‘porrua’.

Ipar Euskal Herri osoan barrena eta euskara nafarraren eremuan barrena erabiltzen dira goranzko diptongoak, baina, ez nonbait indar berarekin. Baztanen, adibidez, oso arrunta da gertakari hau (ik. Salaburu 1984-1: 174-175).

2.2. Izenaren morfologia

2.2.1. Plural hurbileko atzizkirik ez dago ez Larresoro aldean eta ez Hazparne aldean, *gu biak, zuik biak* eta tankerakoak jaso ditut bi eremuetan, Le-

korneko adibide honetan bezala: *denak yendiak gia, iuzkiak beotzen du denentzat*. Herri askotan dagoen *Maison pour tous* ere *Denen Etxea* deitzen dute.

2.2.2. Larresoron-eta, kontzesio perpausetan ez da ezinezkoa partitiboko atzizkiari inesibokoa eranstea, Uztaritzeko adibide hauen modura: *mutuikan e, inikan e, zerinikan e*. Esanahiari ez dio inolako ñabardurarik ekartzen hor inesiboko atzizkiak, baina gehienetan gabe erabiltzen da. Beste deklinabide kasu hauek beti erabiltzen dira inesiborik gabe: ablatiboko *-tik / -gandik*, partitiboko *-(r)ik* (arestiko kontzesio perpausetan izan ezik), denbora eta modu perpausetako *-ela(r)ik* eta motibatiboko *-gatik*.

Hazparne aldean ere bietako adibideak entzun ditut kontzesiboetan, baina gehienbat inesiborik gabe agertzen da: *izanik e eskolatiia, hoi etzaki(ela)n* (Hazp.); *hoi ezta giixtinoa, izanik e apeza* (Hazp.)...

Kontzesio perpausetatik kanpo –goian aipatutako deklinabide kasuetan– ez dirudi erabiltzen denik.

2.2.3. Ergatibo pluralean *-ek* daukagu herri guztietan; beraz, bereizi egiten dituzte absolutibo pluraleko *-ak* eta ergatibo pluraleko *-ek*. Hazparneko berriemailea ohartuta zegoen bereizketa horrekin, eta azalpen hau eman zidan: *aitamak* esaten da gibeletik *yoan dia*-edo datorrenean, baina *aitamek* behar du atzetik *erraiten dute, nahi dute, ez (d)tute nahi* edo horien tankerakoren bat dagoenean.

2.2.4. Datibo singularrean *-a(r)i* daukagu bi eremuetan (gehien-gehienetan galdu egiten da dardarkaria). Pluralean, berriz, *-eri* da erabiliena Larresoro aldean (*biherri* ‘biei’ ere entzun izan dut Uztaritzen), eta bakan agertzen da *-er*, Itsasun izan ezik (hor oso arrunta da).

Hazparnen, Makean, Lekornen eta Luhuson, *-er* da gehien erabiltzen dena, baina *-ei* ere badago. Hazparneko berriemaileari *-eri-z* galdetu nion, eta esan zidan *gizoneri, haurreri* eta parekoak apaizak-edo esango dituela behar bada, baina kaleko jendeak ez dituela ibiltzen. Luhusoko berriemaileak, berriz, noizbehinka erabiltzen dela esan zidan, baina *-er* arruntagoa dela.

Zenbait aditzek datiboa hartzen dute osagarrian: *enintzen bate oartuia orri* (Lar.), *ohartuak tziin gauza berari* (Hazp.). Ere mu zabalagoa hartzen du [ohartu + osagarria datiboan] egiturak; ondoko hau aezkerazkoa da (Camino 1997: 404): *ura etze goartu niri*. Osagarrian datiboa duela entzun izan dut *pentsatu* ere, frantsesaren kalko garbia: *zuri pensatu dut* (Uzt.) (fr. *penser à*). Hazparnen gazteek-eta erabiltzen omen dute horrela, baina berezkoa *gogoan ukan* da: *zu gogoan eona niz*.

2.2.5. Adlatibo singularrean *-(r)at* dago bi eremuetan. Inoiz *-lat* ere entzun izan dut *-a-z* bukatzen diren zenbait hitzetan: *kanpañalat* (Kan.), *pla[3]alat* ‘hondartzara’ (Its.), *plazalat* (Kan.), *pestalat* ‘bestara’ (Uzt.)... Esanahiaren aldetik ez dut uste inongo alderik dagoenik.

Pluralean, *-etaat* erabiltzen da herri guztietan. Aditz izenarekin, *-t(z)eat* egiten da bi eremuetan: *yoan nintzen ikusteat* (Uzt.), *azi [zoaz] konpreniaazteat ori* ‘uler ezazu hori’ (Uzt.), *heldu da yateat* (Uzt.) / *garbitzeat, ikusteat, yateat* (Hazp.)...

Adlatiboko aditzondo erakusleak berberak dira bi eremuetan: *hunát / ho-rrát / há(a)t*.

Aditz nagusi batzuek kasu hau gobernatzen dute: *utzi'ut yiteat* (Hazp.); *entseatuko niz iteat* (Hazp.); *eniz mentuatu galdatzeat* (Hazp.)...

2.2.6. Ablatiboko atzizkiak berberak dira bi eremuetan: singularrean *-tik* eta pluralean *-etaik*: *lurretik, lurretaik*.

2.2.7. Soziatibo singularrean *-aikin* eta *-aikilan* (bigarren hau gutxiago) dauzkagu Larresoron, Ezpeletan, Zuraiden eta Itsasun: *amaikin, senarraikin, bearraikilan*... Uztaritzek, Milafrangak, Jatsuk eta Haltsuk, berriz, Hazparne-ekin batera dute soziatiboko hondarkia singularrean: *-aakin* eta *-aakilan*. Kanbon biak erabiltzen dira.

Baina izenordainetan oinarria laburra bada Larresoro aldean ez du ematen tarteko dardarkari bakuna galtzen denik: *arekin beraikin* (Uzt.). Hazparnen-eta, berriz, bai: *haákin beáakin*.

Pluralean, atzizki berak ditugu bi eremuetan: *-ekin & -ekilan* (*haurrekin, haurrekilan*). Baina *-kila*n aise gutxiago erabiltzen da *-kin* baino, bai singularrean eta bai pluralean.

2.2.8. Instrumentalean *-z* dugu herri guztietan: *egúnaz, gáwaz, eskwáraz, óinez, nítaz, eun guziz* 'egunero', *heletarrez, nórtaz*...

2.2.9. Destinatiboko atzizkian bitasuna dago: *-tzat & -tako* (*-dako*). Adibide hauek Uztaritzekoak eta Hazparnekoak dira: *denentzat & denendako, amaantzat & amaandako*...

Bada erabilera berezi bat, harridurazkoa, zeinetan *-tzat* erabiltzen den (eta ez *-tako*): *to, hietzat!* Testuinguru honetan entzun nion Hazparneko berriemaileari: mutil batek iluntze batez norabait urrun joan beharra zeukan autoa hartuta eta honela esan zion berriemaileak: "Ze, oai gaua, ixtante iluna eta oai yoan beaiz? To, hietzat!". Harridurazko egitura hori zerbait egiten nekea denean bakarrik erabiltzen da.

2.2.10. Prolatiboan *-tzat* erabiltzen da bi eremuetan, baina ez da aukera bakarra; askotan agertzen da destinatiboa ere prolatibo balioan: *aberatsaantzat dauka bee buruia* (Uzt.) / *bigarren aita batentzat hartu du* (Hazp.).

2.2.11. Bi eremuetan aurkitzen ditugu inesibo zaharra daramaten *etxen* bezalako adibideak. Hauek, adibidez, Hazparnekoak eta Lekornekoak dira:

Leen emaztek ukaiten tzituzten aurrak etxen berean (Hazp.).

Egun batez, Hazparneko kridan, errana izan zen ihiziko harma edo holako zerbait etxen bazuten guziak behar zirela herriko etxerat agertu (Hazparne, Dirassar 1995: 36).

Makeako meran etxen mutil eona (Lek.).

Gue etxen e denetan aizanak beiginen (Lek.).

2.2.12. Hurbiltasuna adierazten duen *-ri buruz* bi eremuetan erabiltzen da:

Ikuste'ut nexka ua eldu, lasterka, eni buuz (Uzt.).

Hilabete hondarrai buuz yoaan niz sokseta (Hazp.).

Zazi Azkaineat buuz (Hazp.).

Gaur egun oso zabalduta dago *-i buruz* ‘zertaz’ balioarekin, eta ez Hego Euskal Herrian bakarrik; Ipar Euskal Herriko euskal irratietako esatariek, adibidez, erabiltzen dute balio horrekin, “mintzatu da deputatu bozeri buruz” bezalakoetan. Larresoron, Uztaritzen, Hazparden eta ibili naizen gaine-rako herrietan ez dut inoiz entzun horrela (helduen jardunean behintzat). Ordain hauek aurkitu ditut:

Senarraakin ai izanak kinen atzo, eztakit zeen gainetik, eta Lota [Uztaritzeko jauregi bat] *aipatzen tzauntan* (Uzt.).

Surtsen (fr. *source* ‘iturria, iturburua’) *gainian e in tzuten launbat batez* [larunbatero izaten den dokumental batez ari zen] (Uzt.).

Zeen gainetik duzii auzia? (Hazp.).

Eztút entzún e... hói, gàuza guti bizik e... yáué(g)i hórren, ixtório hórren gi-ñéan (Aiherra, *EDEL* II: 253. etn.).

Aspalditik erabiltzen da *-en gainean* / *gainetik* postposizioa balio honekin (ik. *OEH*, *gain* sarrera, 136-138. orr.); lehenaz, Maurice Harrietek bere eskuizkribuan⁶ dio «sur, touchant à, à propos, à l’égard de, quant à» adierazten duela. Martin Harriet Larresoroko errege notarioak, berriz, adibide hau dakar frantsesa ikasteko euskaraz idatzi zuen gramatikan: *etxen gainetik haserretu dire* (‘etxea dela-eta haserretu dira’). Beste adibide hau ere ildo berekoa da: Martin Duhalde Larresoroko apaizgaitegiko zuzendaria izan zenaren liburuak (1809) *Meditacioneac gei premiatsuen gainean* du izenburua.

2.2.13. Muga adlatiboan *-raino* dugu Larresoron-eta; Hazparden, berriz, *-ano* izenekin (*elizaano*, *astooano* eta are nabarmenagoa den *mutikooano*; *EHHA*), baina *-aino* besterik ez aditzondoekin: *yoaan tzira haraino*, *hortxetaino* (Hazp.). Pluralean, *-etaino* erabiltzen da bi eremuetan.

2.2.14. Denbora muga zehatz bat adierazteko *-(e)no* atzizkia bi eremuetan erabiltzen da (Ipar Euskal Herri osoan bezala, Lapurdiko sartaldean izan ezik):

On deno iten tu orik guziak ‘on [gai] den bitartean egiten ditu [lan] horiek guztiak’ (Uzt.).

Ordu deno, izak hori! ‘garaiz habilen bitartean egin ezak hori’ (Hazp.).

Denbora muga adierazteko *arte* eta *artio* ere erabiltzen dira (bigarrena agurretan gorde da batez ere): *bos sei zazpi onak* [orenak] *arte* (Lar.), *sarri artio!* (Lar., Uzt.), *ikus arte!* & *ikus artio!* (Hazp.)...

2.2.15. *A-z* bukatzen diren aditzetan, mugatzailea eranstea, hautsi egiten da hiatusa Larresoro aldean: *ateaia* ‘ateraia’ (Uzt.), *botáia* (Lar.). Badirudi Hazparden ez direla erabiltzen bi horiek (Luhuson bai), baina oso arrunta da *gostaia*: *ederki gustaia zautak!*, *gostaia gust...*

2.2.16. *-Nt-*, *-nk-* kontsonante taldea sortzen da Nafarroa Beherean *nun*, *hemen* eta kideko aditzondoek leku genitiboko edo adlatiboko atzizkia erans-

⁶ Maurice Harriet, Martin Harrieten iloba, haltsuarra zen sortzez (1814-1904). Euskara-frantses hiztegi bat egin zuen, baina ez zuen argitara eman; hala ere, Lhanderen hiztegiaren-eta erabili izan dela diote.

tean: *hementik* (Aiherra, *EDEL* II: 252. etn.), *hantik* (Ezterenzubi, *EDEL* II: 262. etn.)... Aztergai dudan eremuan ez dut inoiz entzun horrelako kontsonante talderik, ez Larresoro aldean eta ez Hazparne aldean.

2.2.17. Modu aditzondoak absolutibo singularraren bidez egin daitezke (mugagabeaz eta partitiboaz ere bai):

Gu kanpañetan bizi izan gia xur-xurra ‘gu baserrietan bizi izan gara zuhur-zuhur’ (Lar.).

Eztakit berak e baakien e xuxen-xuxena nun den eta... egiazko eta... muga ‘ez dakit berak ere badakien zuzen-zuzen [justu-justu] non den egiazko muga’ (Hazp.).

Ahúa pinztúa, aztaparrak goór-goórra ‘ahoa pintzez⁷ betea [zaldiak], atzaparrak gogor-gogor’ (Lek.).

Geldi-geldia lanian ai ginen ‘astiro-astiro lanean ari ginen’ (Lek.).

2.2.18. Hazparne aldean Larresoro aldean baino gehiago erabiltzen da *-ño* atzizki txikigarria: *báño* (Hazp., Luh.) / *bátto* ‘bat’ (Uzt.), *poxiño* (Lek.) / *pítta* ‘pixka’ (Lar.), *amáño* ‘inudea’ (Hazp.), *liranyaño* ‘laranjatxoá’ (Lek.), *xiriño* ‘ziri txikia’ (Lek.), *bixkotxaño* ‘bizkotxoá’ (Lek.), *gorriño* (Lek.), *gaztanberaño* (Lek.)...

Horrez gain, *-xka*, *-xko* eta *-ko* erabiltzen dira bi eremuetan: *mendíxka* (Hazp.), *untsáxko* (Lek.), *karioxko* ‘garestitxo’ (Hazp., Uzt.), *gootixko* ‘gogotik, gustura’ (Lar.), *finkixko* ‘irmoki’ (Lar.), *xaháko* ‘zahatoá’ (Lek.), *neskatoko* ‘neskatxa’ (Hazp.)...

2.2.19. *Erakusleak*

Ondoko taulan ezarri ditut bi eremuetan erabiltzen diren erakusle guztiak, singularrekoak eta pluralekoak, Larresoroakoak eta Hazparnekoak eredu hartuta. Forma bat baino gehiago dagoenean, azpimarra erabili dut ohikoena zein den adierazteko.

Taulan ikus daitekeenez, erakusleen saila nahiko berdintsua da Larresoron eta Hazparnen. Bietan erabiltzen dira hirugarren graduko dardarkari anizkundunak (*harrek* modukoak) ergatiboan, edute genitiboan eta azken horretatik eratorritako kasuetan. Hiztunek beren ezaugarritzat daukate dardarkari anizkuna duen forma, eta badakite hurbileko beste herri batzuetan ez direla anizkunaz ebakitzen. Larresoroarekin batera dagoen eremuan bata zein bestea entzun daiteke, baina *harrek* eta kidekoak ez dira inondik ere sistemaz agertzen. Hazparnen ere biak ditugu, eta hango berriemaileak esan zidan baliorearen aldetik berdin-berdinak direla *gizon hak erran dik* eta *gizon harrek erran dik*. Bere ustez itsusia da horrelakoetan *harrek* esatea, baina Hazparnen erabiltzen da eta kanpokoak (baigorriarrak-eta) haietaz trufatzen omen dira forma hauek direla eta: “harrak baituzie Hazparnen?” esaten omen diete. Ordea, <harrek> tankerakoak eremu zabalagokoak dira: Gipuzkoan eta Nafarroan barrena ere erabiltzen dira.

⁷ Larruazaleko handitu urtsua da *pintza*, ‘pusla’ edo ‘baba’.

Larresoron-eta gertatzen den hori *bat* eta *batzuk*-en deklinabidearekin lotu beharrekoa izango da: Larresoron, adibidez, bereizi egiten dira *batzu* eta *batzui*k (lehena absolutibo plurala da eta bigarrena ergatibo plurala). Hazparnen, *batzu* dugu absolutiboan eta *batzuk* ergatiboan.

2.2.20. *Pertsona izenordain indartuak*

Taulan eman ditut deklinabide kasu gramatikalei –absolutiboan, ergatiboan eta datiboan– eta edute genitiboari dagozkien forma indartuak:

	Larresoro	Hazparne
abs.	nióni (h)ióni béra guúni & guióni zuúni & zuióni zuioni bérak	niháur hiháur béra guháur zuháur / xuháur ziháuk bérak
erg.	niónik (h)iónik bérak guiónik zuiónik zuiónik berék	<u>niháuk</u> (& niháurek) hiháuk bérak guháuk zuháuk (& zuháurek) xuháuk (& xuháurek) ziháuk berék
dat.	niháuri hiháuri berái guháuri zuháuri zuiháuri beréi	niháu(r) ⁸ hiháuri berái guháuri zuháuri / xuháuri ziháuri(i) berér
ed- gen.	niháun hiháun beraren gu(h)áun zu(h)áun zui(h)áun berén	niháun hiháun háan / beraren guháun zuháun / xuháun ziháun héen / be(r)én

Oharrak:

a) Forma:

Bi herrien arteko alde nagusia da batean, Larresoron, *neroni* gisakoena saila ere erabiltzen dela eta bestean –Hazparnen– *nihaur* gisakoena bakarrik. Jakina da *nihaur* eta kidekoak Ipar Euskal Herrian bakarrik erabiltzen direla.

⁸ *Eni* usuago erabiltzen dela zioen Hazparneko berriemaileak. Ad.: *Eni in bear holako yoko!*

Beste saila (*neroni* eta *kidekoena*), Gipuzkoan eta Nafarroan barrena eta Lapurdiko sartaldean erabiltzen da.

Kasu ergatiboan, *nihaur* bezalakoan sailean bi aukera daude: *niháuk* eta *niháurek* (antzinako forma *niháurk* da). Hazparneko berriemaileak esan zidan Hazparnen *niháuk* bezalakoak erabiltzen direla. Galdetu nion ea *niháurek*, *guháurek* eta horien tankerakoak ere erabiltzen ote diren, eta esan zidan tarteka entzun daitezkeela, baina Hazparnen *niháuk*, *guháuk*... direla berezkoak. Kontua da gero elkarrizketa laxoan behin baino gehiagotan entzun izan diodala, adibide honetan bezala: *niháurek e eztaikit xuxen nun ezartzen duten muga* ‘neuk ere ez dakit zuzen [justu] non ezartzen duten muga’.

b) Erabilera:

Euskalki guztietan orokorra den enfasi balioaz gain, ‘bakarrik, inork lagundu edo eraman gabe’ esanahia izan dezakete pertsona izenordain indartuek ekialdeko hizkeretan (Oihartzabal 2002: 238; “balio eskusibo” deitzen du). Adibidez, *nionik iten dut* perpausa hartzen badugu (Lar.)⁹, bi adiera hauek izan ditzake: i) neuk egiten dut, ez beste batek. ii) bakarrik egiten dut, inor ez da nirekin etortzen. Testuinguruak argitzen du bietan zein adierazi nahi den (goiko adibidean, bigarrena zen). Pertsona guztiekin ager daiteke erabilera eskusibo hau (ad. *bera bizi da* ‘bakarrik bizi da’), eta bi eremuetan da ohikoa.

2.2.21. Izenordain zehaztugabeak

Bizidunetan, forma berak ditugu Larresoro aldean eta Hazparne aldean: *neór* lehenean eta *nehór* bigarrenean (ergatiboan, *neók* / *nehók*). Bestalde, hor ditugu Larresoroko *norbé(i)t* eta Hazparneko *norbít*. Eskuinaldean *bait* dute beste hauek ere: *zerbét* & *zeáit* (Lar.) / *zerbít* & *zéit* (Hazp.), *zonbéit* (Lar.) / *zonbíit* (Hazp.), *nunbéit* (Lar.) / *nunbít* (Hazp.)...

Zehaztugabe konposatuetan bigarren osagaian *nahi* duten izenordainak nagusitzen dira, *edo-* dutenen aldean: *zernái* (Lar.) / *zernahí* (Hazp.) (‘edozer’-en ordaina), *nornahí* (Lar., Hazp.), *noiznai* (Lar.) / *noiznahí* (Hazp.), *nunái* (Lar.) / *nunahí* (Hazp.), *nundinaitik* (Lar.) / *nunahítik* (Hazp.), *nolanaizka* (Lar., Hazp.)... Hala ere, *edozoin* erabiltzen da Larresoron eta Hazparnen.

Bestalde, aipatu behar da *-ren bat* egitura zehaztugabearen ordaina [zerbait + izena] nahiz [izena + zerbait] dela bi eremuetan:

Geoztik muntatu zankon zerbet problema zintzurrian ‘geroztik sortu zitzaien arazoren bat zintzurrian’ (Uzt.).

Baginuen zerbeit abantail diruain unkitzeko ‘baginuen abantailaren bat dirua jasotzeko’ (Lar.).

Zerbeit balentria in eta ‘balentriaren bat egin eta’ (Hazp.).

Bauzu etsamin zerbeit? ‘baduzu azterketaren bat?’ (Lar.).

Badute maxina zerbeit ‘badute makinaren bat’ (Lar.).

⁹ Testuingurua honako hau zen: berriemaile honek ohitura handia du oinez ibiltzera joateko, “martxa egiteko”, eta bera bakarrik joaten dela azaltzen ari zitzaidan, alegia, lagunik gabe ibiltzen dela.

Leku-denbora kasuetan hauek dira nabarmenenak: *niún* (Lar.) / *nihún* (Hazp.), *niúndik* & *niundanik* (Lar.) / *nihúndik* (Hazp.), *nehórat* (Lar.) / *nehóat* (Hazp.). Aipatzekoa da ‘inola’-ren parekoa *niúndik e* (edo *deus gisaz*) dela bi eremuetan, adibide hauetan ikus daitekeenez (ez da erabiltzen *nehóla* edo horren tankerakorik):

Ene senarra ezta han pasten ahal arrastatu gabe. Aldi bat edo bertze paastuko da presatuia balin bada, me bertzenaz niúndik e ezta zerinen ‘nire senarra ez da han(dik) pasatzen ahal gelditu gabe. Noizbait pasatuko da presaka baldin bada, baina bestela inola ere ez da zer egingo’ (Uzt.).

Gizona ez joan nai, niúndik e ez joan nai ‘gizona ez joan nahi, inola ere ez joan nahi [zaharretxera]’ (Uzt.).

Bestalde, *nehóiz* ‘inoiz’ edo antzekorik ez dago, *beine* (Lar.) / *behíne(e)* (Hazp.) eta *sekulan* dira ordainak. Bigarren hori baldintza perpausetan ere erabiltzen da, indargarri modura (bi eremuetan):

Atxikazu estekatuik, zen sekulan zerbet iten badaut gostako zatzu! ‘euts iezaiozu lotuta [zakurrari], zeren zerbait egiten badit kostako zaizu!’ (Uzt.).

Sekulan galdaiten badauzkit emanen dazkot orik ‘galdetzen badizkit horiek emango dizkiot’ (Uzt.).

Azkenik, bi eremuetan ditugu *deus*, *deusik* (aurrekoaren indargarria) eta balio bereko *fitxik*, azken hori izenetik badator ere (‘ezer’-en ordainak dira guztiak).

2.2.22. Galdetzaileak

Beheko taulan eman ditut Larresoron erabiltzen diren galdetzaileak:

abs.	<i>nor</i>	<i>zóin</i>	<i>ze</i>
erg.	<i>nok</i>	<i>zóinek</i>	<i>zek</i>
dat.	<i>nó(r)i</i>	<i>zóini</i>	<i>zé(r)i</i>
ed-gen.	<i>nó(r)en</i>	<i>zóinen</i>	<i>zé(r)en</i>
dest.	<i>nointzat</i> & <i>noindako</i>	<i>zoinentzat</i> & <i>zoinendako</i>	<i>zeentzat</i> & <i>zendako</i>
soz.	<i>no(r)ekin</i> & <i>noekilan</i>	<i>zoinekin</i> & <i>zoinekilan</i>	<i>zeekin</i> & <i>zeekilan</i>
ines.	<i>nun</i>	<i>zóintan</i>	<i>zértan</i>
adlat.	<i>noat</i>	<i>zointaat</i>	<i>zertaat</i>
ablat.	<i>núndik</i>	<i>zointaik</i>	<i>zertaik</i>
leku-gen.	<i>núngo</i>	<i>zointako</i>	<i>zetako</i>
inst.	<i>nórtaz</i>	<i>zóintaz</i>	<i>zetaz</i> & <i>ze(r)ez</i>
motib.	<i>noingatik</i>	<i>zoinengatik</i>	<i>zetako</i> & <i>zendako</i>

Hazparnen erabiltzen diren galdetzaileak Larresoroko berberak dira, desberdintasun fonologiko hauekin:

- Datiboan, *noói* ‘nori’ / *zóini* ‘zeini’ / *zéi* ‘zeri’ ditugu.
- Edute genitiboan, *noón(a)* / *zóinen(a)* / *zéen(a)* ditugu, eta honen eratorrietan ere *noóntzat* & *noóndako*, *noókin* & *noókilan* eta *noóngatik* erabiltzen dira.

2.3. Aditzaren morfologia

2.3.1. Galderetako *-a* partikularekin batera, *ukan*-en erabilera aipatu zuen Bonapartek «mendebaleko behe-nafarreraren» Lapurdiko azpieuskalkian bi

hizkera bereizteko: Lekorneko hizkeran *izan* eta *ukhan* bereizten direla esan zuen; Uztaritzekoan, berriz, “cela n’a lieu que dans quelques localités et d’une manière tout-à-fait exceptionnelle et comme d’emprunt” (1866: 29). Beharbada herri batzuetan –Milafrangan behintzat bai– salbuespena baino gehiago izango da. Milafrangako berriemaileak noiznahi esaten ditu *eniz etxean ukaan* ‘ez naiz etxean izango’ bezalakoak (hor *izan* erabiliko litzateke Larresoron eta gainerako herrietan), eta Louis Dassance-n ohar hau ere kontuan hartzekoa da (Irizar 1999: 369): “Milafrangan askotan aditzen da: ‘Baionan *ukhan* niz’ (j’ai été à Bayonne), guk aldiz, Baionan *izan* niz”.

Larresoron aditz nagusi gisa besterik ez da erabiltzen, eta aditz hori iragankorra denean bakarrik:

Seme bat ukan dute ‘seme bat izan dute’ (Lar.).

Uai ukan du bee diploma ‘orain izan du bere diploma’ (Lar.).

Zazpi aur ukanik ‘zazpi haur izanik’ (Lar.).

Baina horietan aukeran dago *izan* erabiltzea. Adibidez, pertsona berarekin eta testuinguru berekoak dira *izan* duten beste hauek: *haurra izan ordurko; ez du izan maleruski prebeta*.

Inoiz ez dut entzun *ukan* aditz perifrasi luzeagoetan, *behar ukan, nahi ukan, ahal ukan, uste ukan* eta horien antzekoekin. Hazparne aldean, berriz, oso arrunta da horrelako perifrasietan ere *ukan* aurkitzea:

Beti uste ukan dut hango yendiak serioak zirela ‘beti uste izan dut hango jendea serioa zela’ (Hazp.).

Lagundu nahi ukan ginuen ‘lagundu nahi izan genuen’ (Dirassar 1995: 53).

In bear ukan dut ‘egin behar izan dut’ (Luh.).

Baina *uste izan, ahal izan* eta kidekoak ere erabiltzen dira. Hazparneko berriemaileari galdetu nion bietan zein erabiltzen den gehien, eta hori esatea neke dela erantzun zidan, biak erabiltzen direla. Garbi dago zenbat eta men-debalerago etorri orduan eta gutxiago erabiltzen dela *ukan*. Segur asko Kanbotik eskuinaldera jarri beharko da muga, zeren Itsasun arraroa da aditz nagusitik kanpo aurkitzea.

2.3.2. Sudurkariz eta *-o-z* bukatzen diren aditz batzuek *-ite* hartzen dute aditz izenean, Ipar Euskal Herri gehienean bezala (Lapurdioko sartaldea da salbuespena): *iragaiten, emaiten, izaiten, erraiteko, yoaiteat, erraiteat...* Antzeko adibideak bildu ditut Hazparnen eta Lekornen: *emaitetik* ‘ematen dik’, *erreiteie* ‘esaten dute’, *izaitetik* ‘izaten duk’, *yoaiten da* ‘joaten da’, *egoiten da* ‘egoten da’, *behier pazkaen emaiteat* ‘behiei bazka ematera’... *Jo* silaba bakarrekoak *-iten* hartzen du bi eremuetan (*yóiten* ‘jotzen’); *yan*-ek, berriz, *-ten* (*yáten* ‘jaten’). Beste hauek erroan daukate *-i-*: *íten* ‘egiten’, *yíten* ‘etortzen’. Eta *edán, etzán* eta *errón* ‘errun’-ek *-ten* hartzen dute bi eremuetan: *edáten, etzáten, erróten*.

2.3.3. Geroaldiko morfemak *-en* eta *-ko* dira Larresoron, eta honetan bat datoz Uztaritze aldea eta Hazparne aldea. Aditz gehienekin *-ko* ibiltzen da, *-n-z* eta *-l-z* bukatutakoekin izan ezik. Horiekin *-en* erabiltzen da bi eremuetan, eta gehienetan bilakaera fonologikoa gertatzen da atzizki hori eranstea. Bilakaera horren emaitza desberdina da Larresoron eta Uztaritzen; Larreso-

ron, *-in* bilakatzen da *-n-z* bukatutakoetan, aurretik *i-rik* ez badu: *yoainiz* ‘joanen naiz’, *emain dakot* ‘emanen diot’..., baina *hilen gira, inen du*. Uztaritzen (eta baita Hazparnen ere), *-aan* izaten da emaitza hizketa bizian: *erráan dute* ‘erranen dute’, *emáan datzut* ‘emanen dizut’, *izáan da* ‘izanen da’, *yoáan gia* ‘joanen gara’, *atxemaan dautzuu* ‘atzemanen dizugu’, *yáan tut* ‘janen ditut’... *Jo* aditzarekin *-ko* nahiz *-ren* erabil daiteke: *yóko nu & yoónu* ‘joko nau’ (Hazp.).

2.3.4. Baldintzazko perpausetan, alegiazko adizkiak eratzeko bi modu daude: iragangaitzetan, “ \emptyset + baledi” moduko egituren bidez nahiz “-t(z)en balitz” moduko bidez; iragankorretan, “ \emptyset + baleza” nahiz “-t(z)en balu” egituren bidez. Bi egitura horietan *-t(z)en balitz / balu* da erabiliena:

Gure xarrekk ikusten balute! ‘gure zaharrek ikusiko balute’ (Lar.).

On litake, ba, bearba, iten balu! ‘on litzateke, bai, beharbada, egingo balu!’ (Uzt.).

Nik nai nuke ene alaba lanian ai den tokian iten balute olako zerbet ‘nik nahi nuke nire alaba lanean ari den tokian egingo balute horrelako zerbet’ (Uzt.).

Beste hauek “ \emptyset + baledi / baleza” egiturakoak dira:

Iande guziez, gue denboran bezala yin balite, ikas letzazkete kantuiak, ariz ‘igandero, gure denboran bezala etorriko balira [gazteak mezatarra], ikas litzakete kantuak, ariz’ (Lek.).

Obe litake xarpanterak berak egin baleza ‘hobe litzateke arotzak berak egingo balu’ (Uztaritze, EHHHA).

Yin balái, ikus lezake ‘etorriko balitz, ikusiko luke’ (Hazp.).

Gue ama zenak ikus baleza oai zoin edertu duten etxia! ‘gure ama zenak ikusiko balu orain zein edertu duten etxea!’ (Hazp.).

Gure arbasuen mintzaia eskoletan iakats balezate, elitake holakorik gerta (Hazparne, Etxeberria 1994: 51).

Iraganaldiko adizkietan, apodosian indikatibozko iraganak ordezkatzeko ditu ahalezko formak: *ez banu ikusi, enuin sinetsiko* ‘ez banu ikusi, ez nuen sinetsiko’ (Uzt.); *ez baginu eosi, ez giniin xakurrik ukanen* ‘ez bagenu erosi, ez genuen txakurrik izango’ (Hazp.)...

2.3.5. Ahalezko egituretan, *ahal izan* bidezko perifrasiak ordezkatzeko dituzte maiz *ke-dun* adizkiak. Horrelakoetan *-t(z)en* marka burutu gabea hartzen du dagokion aditzak: *uai bakotxak berak egiten aal ditu* ‘orain bakoi-tzak bakarrik egiten ahal ditu’ (Lar.), *eritzen aal dia* ‘gaixotzen ahal dira’ (Lar.)...

Ezintasuna adierazteko, ezezkoan jartzen da perpausa: *mirakuluik eztu iten aal* ‘miraririk ezin du egin’ (Uzt.), *etzuin uzten aal pipatzia* ‘ezin zion utzi erretzeari’ (Lar.), *eztut iten ahalko* ‘ezingo dut egin’ (Hazp.), *eztut ikusten ahal* ‘ezin dut ikusi’ (Hazp.)...

2.3.6. Datiboko aditz komuntadura. Perpausean hirugarren pertsonako datibodun sintagma ageri bada, aditzak ez du nahitaz datiboaren morfema hartzen: *edanari eman tzen* ‘edanari eman zion’ (Lar.), *etxea nai zuten eman*

iloba'ati 'etxea nahi zioten eman iloba bati' (Lar.), *amari galdetuko duzu zer den ori* (Lar.), *eztut beatu bear zue paperai* 'ez diot begiratu behar zure paperari' (Zur.)... Hogeigarren mende hasieran Uztaritzeko alkateak egindako hitzaldi batean datiboa bigarren pertsona duen adibide bat agertzen da: *zuri, urthe guzietz, oihu egiten dugu* (Souberbielle 1921: 717). Nik hirugarren pertsonaz kanpo ez dut inoiz entzun.

Honetan bat datoz bi eremuak: *erranen dut aixkide bati* 'esango diot adiskide bati' (Hazp.), *xaharrer-eta aituko'uzu* 'zaharrei-eta adituko diezu' (Hazp.), *lau ektara pentze hartu nitin mutxurdin bati* 'lau hektarea pentze hartu nituen mutxurdin bati' (Lek.)... Ordea, Luhuson entzun izan dut lehen eta bigarren pertsonarekin: *hek eni "zu" errate'ute* 'haiek niri "zu" esaten didate'; *zuri iten duu* 'zuri egiten dizugu'.

2.3.7. Indikatibotik kanpo aditzoina ibiltzen da beti bi eremuetan: *untsa tinka dain* 'ongi tinka dadin' (Lar.), *forma pollita ar dezan* (Lar.), *yar tzite or!* 'eser zaitez hor!' (Lar.), *etzitela kexa* (Uzt.), *elezake konpreni* (Uzt.)... Kasu berezia da denbora perpausetako [aditzoina + *eta*] egitura: *buruz beheiti ezar eta elurra bezala egiten zuena* (Hazparne, Dirassar 1995: 66).

2.3.8. Hego Euskal Herrian hedatua dago *nor-nori-nork* adizkiak erabiltzea *nor-nork* sailekoen orde. Nik ez dut inoiz entzun fenomeno horren adibiderik ibili naizen herrietan. Ipar Euskal Herrian ez dago, salbuespenak salbuespen (Baigorri inoiz gertatzen omen da; Irizar 1981-2: 363).

Alderantzizkoa, *itsasaldeko solezismoa* esan izan zaiona, Senpere aldeko eragina duten jendeetan bakarrik entzun dut: *emanen tzitut, ekarriko tzitut...* Beste horrenbeste uste dut gertatzen dela Koldo Artolak Ezpeletan bildutako *zaitut* 'dizut' adizkiarekin, kontuan izanik berriemaile horren emaztea ainhorarra dela. Muga Ezpeleta inguruan egongo da segur aski, zeren hortik mendealera indar handiagoa du (Zuraideko berriemaileak erruz erabiltzen ditu *zaitut* bezalakoak).

2.3.9. Moduz markaturiko adizkiak erabiltzen dira bi eremuetan, eta bi balio dituzte:

- a) segurtasunik eza: *kanpoan ditake, ezkia kuutzatzen aspaldian* 'kanpoan dateke, ez gara gurutzatzen aspaldian' (Uzt.); *gizongea baiuke* 'gizongea baduke' (Hazp.); *badakike* (Lar.); *hasia duke* (Lar.); *yina'ukexu* 'jina dukexu' (Hazp.)...
- b) ahala: *yin ditake, beinan eztu enbeiaik* 'etor daiteke, baina ez du gogorik' (Uzt.). Nolanahi ere, horrelakoetan gehiago erabiltzen da *ahal izan* bidezko perifrasi.

2.3.10. Iraganeko gertakizun burutuei erreferentzia egiteko orainaldiko adizkiak erabiltzen dira maiz: *mainuetan asi niz atzo* (Lar.), *yoan den astian ikusi duu elgar* (Lar.)... *Atzo izan niz* bezalako ez gain *atzo izana niz* modukoak ere usu entzuten dira. Jokabide berbera dute honetan ere Larresoro aldeak eta Hazparne aldeak.

2.3.11. Bi eremuetan franko erabiltzen da subjuntiboa: *anitzek nahi dute eskuara ikas dezaten eskolan* (Lar.), *bear tzakote miia kanpoat ateatu eztezatzen iets* 'mihia kanpora atera behar zaie ez dezaten irentsi' (Uzt.), *emaiten tut an*

izan diten ‘ematen ditut han izan daitezten’ (Uzt.), *eztu balio yin tziten* ‘ez du merezi etor zaitezten’ (Hazp.)... Adibideetan ikusten denez, beti ez du aditz izenak ordezkatzen.

2.3.12. Aditz izenaren osagarria edute genitiboan agertzen da askotan: *beartzenain iteko*, *otoitzen erraiteko*, *debuarren egiteko* ‘behar zena egiteko, otoitzak esateko, eskolako lanak (fr. *devoir*) egiteko’ (Lar.)... Hazparden eta Lekornen ere ugariak dira honelakoak (baina genitiborik gabekoak ere badira, Larresoron-eta bezala): *erreximenta itekwa* ‘erreximenta [marmelada] egitekoa’ (Lek.), *gue beztitzeko* ‘gu janzteko’ (Lek.), *amáan ikusteat* ‘ama ikustera’ (Hazp.), *biséiaan ikuzteat* ‘aurpegia garbitzera’ (Hazp.)...

2.3.13. *Ari izan* aditzak laguntzaile iragankorra har dezake bi eremuetan, baina Larresoron beharbada gehiago erabiltzen da laguntzaile iragangaitza: *garbitzen ai da / ekasten ai du beti* ‘ikasten ari dugu beti’ (Lar.). *Hasi*-rekin ere entzun izan dut **edun* laguntzailea: *geo hasi zuten erraten*... (Uzt.).

Senperen ere *bídea itén hai dié* eta *bídea itén hái duté*, biak erabiltzen dira (Irizar 1997: 86).

2.3.14. **Iron* erroa bada bi eremuetan, baina ez du indar handirik (ez dakit adin kontua ez ote den izango). Nik Larresoron eta Itsasun behintzat entzun dut: *eztiot* ‘ez dezaket’ (Its.), *eztio in* ‘ez dezake egin’ (Lar.). *EHHA*-k ere bildu zuen Uztaritzen (*lio*), eta Hazparneko berriemaileak esan zidan **ezan* errokoak gehiago erabiltzen badira ere, adizki horiek badirela Hazparden, edo adinekoek behintzat badakizkitela. *EHHA*-ren Hazparneko berriemailearena da, adibidez, *itze oi eztiot nehundik atea* ‘iltze hori ez dirot inola ere atera’.

2.3.15. NOR-NORI sailean, orainaldian, *z-* hasiera duten adizkiak besterik ez dira erabiltzen Larresoro aldean: *zaut* ‘zait’, *zautzu* & *zaitzu* ‘zaizu’, *zauku* & *zaiku* ‘zaigu’, *zautzui* & *zaitzui* ‘zaizue’ (Uzt.)... Hazparne aldean, berriz, gehienbat *d-* erabiltzen da orain, baina Bonaparteren garaian bitasuna zegoen (Irizar 1999: 511-512). Adizki hauek Hazparnekoak dira: *daut* ‘zait’, *dautzu* ‘zaizu’, *dako* ‘zaio’, *dauku* ‘zaigu’, *dautzii* ‘zaizue’, *dakote* ‘zaie’. Hala ere, Artolaren arabera Hazparne ez da guztiz homogeneoa ezaugarri honi dagokionez (Irizar 1999: 423): auzoetan (Elizaberrin, Urkoin eta Zelain) *d-* nagusitzen da, baina Hazparneko karrikan nahasirik erabiltzen dituzte *d-*dunak eta *z-*dunak.

2.3.16. N-N-N sailean **eradun* erroa nagusitzen da bi eremuetan, baina Larresoro aldean **-i-* erroa ere erabiltzen da, datiboa hirugarren pertsona (‘hari’ eta ‘haiei’) denean: *dako* & *dio*, *zakon* & *zioin* (sic) ‘zior’...

2.3.17. N-N-N saileko pluralgileak *zki* eta *zk* (bigarren hau datiboa ‘hari’, ‘haiei’ denean) dira Uztaritze aldean: *dauzkitzut* ‘dizkizut’, *dauzkit* ‘dizkit’, *dazkidatzu* ‘dizkidazu’, *dazkitzuu* ‘dizkizugu’ / *dazkotet* ‘dizkiet’, *dazkote* ‘dizkie’...

Hazparden *i* pluralgilea ere erabiltzen da N-N-N sailean: *dait* ‘dizkit’, *daitet* ‘dizkidate’, *daitzut* ‘dizkizut’... Lekornen, ikusten denez, Bonaparteren garairaino jo behar da horrelakoak topatzeko (Irizar 1999: 423). Luhusoko berriemaileak ontzat eman zituen *i* pluralgilea duten formak, baina besteak

nagusi direla ohartarazi zuen. Bestalde, Milafrangan ere bada *i* pluralgile baliorekin.

Gauza bera gertatzen da NOR-NORI saileko adizkiekin: *zauzkit* ‘zaizkit’ bezalakoak nahiz *zazko* ‘zaizkio’ bezalakoak ditugu Larresoro aldean, eta *zait* ‘zaizkit’ bezalakoak Hazparden eta Milafrangan.

2.3.18. *Jaugin* ‘etorri’ aditzaren adizkiak aginteran bakarrik gordetzen dira, baina Larresoro aldean ez dira ohikoak (*zato* ‘zatoz’, *zauzte* ‘zatozte’ erabiltzen dira, baina *hau* ‘haugi’ ere bada); Hazparden, Makean eta Lekornen, berriz, biak erabiltzen dira: *haugi* ‘hator’, *xauri* & *zato* ‘zatoz’. Luhuson ez dago xukarik eta beraz *haugi* eta *zato* erabiltzen dira.

Interesgarria da EHHA-ren Makeako berriemaileak, Martin Olhatek, el-karrizketa librean egin zuen ohar hau (24b zintan): Makean *zato hunat!* erabiltzen dela dio, baina ikastolan dabilzan haurrak *etor una!* esaten hasi direla.

2.3.19. Tratamenduak. Eztabada eta hitanoa bi eremuetan erabiltzen dira, baina eztabadak indar handiagoa du. Bestalde, xukarik gabeko lurraldea da Larresoroko hizkerari dagokion eremu osoa. Larresoron entzun izan dut haur txikiekiko hizkeran, baina ez da xuka alokutiboa. Honetan uniforme da hizkeraren eremu osoa.

Lekorneko hizkeran bada xuka, baina horkoa ere ez da alokutiboa. Ikusten denez, xuka ez alokutibo honek ez du hartzen hizkeraren eremu osoa: Lekuinen, Lekornen eta Makean erabiltzen da, baina azken bi herri horietan ia emakumeen artean bakarrik. Hazparden ere bada (ez alokutiboa), baina gehienbat haur txikiekiko hizkeran, eta emakumeekikoan erabiltzekotan aspaldiko ezagunak edo adiskideak behar dute izan. Hizkeraren hegoaldean –Luhuson eta Makeako hegoaldean– ez dago xukarik (Irizar 1999: 423). Luhuson egiaztatu dut ez dutela xukarik egiten, auzo herrietakotzat daukate.

Bestalde, eztabadakako *xu* hau erabiltzeak noketaren atzerakadan zerikusi handia izango duela dio Alberdik (1996: 356). Dudarik gabe, hiketa guxtiago erabiltzen da eztabada baino, batez ere noketa. Esan behar da gazte batzuek ez dutela ikasi hika; Koldo Artolak Luhusoko adizkitezia osatzeko amona eta hogeita bi urteko iloba izan zituen berriemaile, eta amonak eman zizkion hikako forma guztiak, iloba gazteak ez duelako ikasi tratamendu hori (Irizar 1999: 431). Nik ere familia batean baino gehiagotan ikusi dut hori; esate baterako, Haltsuko berriemaileari egindako elkarrizketa batean bere hamabost urteko iloba (neska) egon zen gurekin, Hazparden jaioa eta han bizi dena, eta iloba hark ere ez zekien hitanorik (amonak ere zuka egiten zion).

Azkenik, esan behar da zuketarik ez dagoela Larresoroko hizkerarekin batera dagoen lur eremuan, baina Koldo Artolak jaso zituela zuka alokutiboaren arrastoak eremu honen iparraldean, Milafrangako Behereko kartieran (Hiribururekin egiten du muga eta handik barneratua izan litekeela dio). Baina zuka alokutiboa ez da hizkera honen ezaugarri berezkoa, ezta Hazparden aldekoarena ere (Irizar 1999: 381).

2.4. Joskera

2.4.1. *Bai* / *ez* motako galde perpausetako *-a* partikula da mendebaleko behe-nafarreraren Lapurdiko azpieuskalkiaren barruan bi hizkera bereizteko Bonapartek aipatu zuen ezaugarrietako bat. Gaur egun Larresoron ez da era-

biltzen, ezta honekin batera ezarri zituen herrietan ere (Itsasun eta Kanbon izan ezik). Hazparne aldean, berriz, zeharo erabilia da (Hazparnen, Makean, Lekornen eta Luhuson behintzat):

Zapeta horiikin yoan beaiza? (Hazp.).

Yende horiikin beauka musian ai izan? (Hazp.).

Ateatiia dea? (Hazp.).

Inen dutea? (Hazp.).

Eztea hala? (Lek., Luh.).

Aditu duziia ze akzident izigarria gertatu den? (Hazparne, EAEL II, 235. etn.).

Nik takita? ‘nik dakita?’¹⁰ (Hazp.).

Eztuna fini? (Luh.).

Eztuna yin goo? (Luh.).

Hazparneko berriemaileak zioen *ikusi'uk?* eta *ikusi'uka?*, biak erabiltzen direla Hazparnen, baina bigarrenak beste indar bat duela. Bonaparteren datuen arabera, Hazparnen eta Lekornen ez ezik Lekuinen, Luhuson, Makean eta Nafarroa Behereko Aiherran ere erabiltzen da (1866: 29). Hego-mendebalerago joz, esango nuke Kanbo inguruan dagoela muga, nire datuen arabera hor eta hegoaldeetik muga egiten duen Itsasun bi moldeak erabiltzen direnez gero.

2.4.2. Aurkaritzako perpausetan, bi balio izan ditzake *bainan* (& *beinan*) juntagailuak: ‘baina’ eta ‘baizik’. Bigarren balio horrekin galdegai bat ezeztatzen eta haren lekuan beste bat baieztatzen denean erabiltzen da. Bigarren juntagaiaren hasieran jartzen da juntagailua: *ez enetako, bainan amarentzat* (Lar.); *ezta gure afera, beinan yabearena* (Uzt.); *ez naski ni bezalakoekilako, bainan bere gisakoekilako* (Itsasu, Ariztia 1982: 122); *hori ez zuen erraiten delako opila gogoan, bainan bixkotxen gatik* (Hazparne, Dirassar 1995: 52); *ez bai hiz gehiago haur bat, bainan mutiko gazte bat* (Hazp., Dirassar 1995: 103)... Ibili naizen herri guztietan erabiltzen da.

2.4.3. Perpaus hautakarietan bereizi egiten dira *edo* eta *ala* (bi eremuetan). Zeharkako nahiz zuzeneko aukera-galderetan gehienbat *ala* erabiltzen da:

Zure aitamekin ta yuaiten tzia ala zure lagunaikin? (Lar.).

Zoin tzen, neska zaharrena ala gaztena? (Hazp.).

Eztaikit Alduden ala Urepelen tzien (Uzt.).

Baina ez da ezinezkoa galderetatik edo zehargalderetatik kanpo aurkitzea: *buiiaz harria yo ala harria buiaz bardin eldu zen guetako* (Lek.).

2.4.4. Ezezko eta galderazko perpaus osagarrietan, *-(e)la* menderagailua erabiltzen da, eta ez *-(e)nik* (bi eremuetan): *eztu iduri eri dela* ‘ez du ematen gaixo dagoenik’ (Lar.); *ez pentsa hain aise zeriten dela* ‘ez pentsa hain aise zera egiten dela’ (Uzt.)...

¹⁰ Nik takita? ‘nik al dakit?’ esamolde gisakoa da, eta orokorra da eremu guztian.

2.4.5. Aditz nagusia *uste izan, beldur izan* edo *badaiteke* bada, mendeko perpaus osagarriak ez du *-(e)la* menderagailua hartzen, *-(e)n* baizik (bi eremuetan). Adibide hauek Larresorokoak dira:

Baditake ezten hain gaztea.

Eztut uste erraiten den oi.

Badut uste eztuen deus onik.

Beldur niz semiak berritz asia duin bere doloria.

2.4.6. Markatu gabeak diren perpausetan ‘ba + aditza’ egitura erabiltzen da ibili naizen herri guztietan. Ezaugarri honek hedadura zabalagoa du (Ipar Euskal Herri guztian betetzen da). *Ba-* duena neutroa da: *guk hiru xakur baituu* (Hazp.). *Ba-* gabekoa, berriz, markatua, eta esaldiak segidarik ez badu beste zerbaitekin kontrajartzeko erabiltzen da. Esate baterako, goiko esaldia hartuz *–hiru xakur ditugu–*, izen sintagma hori [*hiru xakur*] markatzeko erabiliko litzateke, hau da, hiru txakur dituela nabarmentzeko, eta ez, adibidez, hiru katu. Gehienetan esaldiak segida duenean erabil daiteke *ba-* gabekoa: *hiru alaba ditut esposatiak, eta batto esposatzekoa* (Hazp.).

2.4.7. Partizipio soila aise erabiltzen da erlatiboetan, baina beharbada Hazparne aldean Larresoro aldean baino aiseago: *nihauk aitu ixtorio bat* (Hazp.); *pesta hartaat bildu yendiak* (Hazp.); *Bidaxunetik yin gizona kaskoina zen* (Lek.); *Makeatik yin yendiak* (Luh.)...

2.4.8. *Bait-* bidezko erlatiboak, maiz kausa-azalpeneko kutsua dutenak, bi eremuetan erabiltzen dira: *auzoan or koinata baitut, paalesiatua baita* (Uzt.); *baduu xakur bat, yaz eosi baikiniin* (Hazp.)...

2.4.9. Zehargalderetan *-nez & -netz* bukaera erabiltzen da bi eremuetan: *eztakit balio duenetz erraitia* (Hazp.); *eztakit kasu ortan era(b)il nezakenez* (Hazp.); *eztakit inak nitiinetz e ‘ez dakit eginak nituenetz ere [hamabi urte]’* (Lek.)...

2.4.10. Kausa perpausetako *-elakoan* atzizkia bi eremuetan erabiltzen da: *beti pleñi da sosik ez duilakoan* (Uzt.); *ezta apeza delakoan geldituko to gabe [nik hari to esan gabe]* (Hazp.); *bearba eztelakuan aise ateatzen* (Hazp.)...

2.4.11. *(H)a(i)nitzen* zenbatzailea izenaren aurretik joaten da gehienetan, baina aukeran dago izena absolutiboan dagoenean (bi eremuetan). Adibide hauek Uztaritzekoak dira: *hanitz aldiz, anitz eritasun, etzuten ateatzeko anitz enbeiaik, hanitz tokitat, hanitz inposa...*

2.4.12. Baldintzazko perpausetako *-(e)n ber* egitura bi eremuetan erabiltzen da: *hari igual tzako, nik iten tutan ber kanpoko lanak ‘nik egiten baditut’* (Uzt.); *iduitzen tzakote ezautzen duten ber zernai iten al dutela* (Uzt.); *arno xorta baden ber nik edanen dut* (Hazp.); *mutiia ezten ber bearko du zerbit erran* (Hazp.)...

2.4.13. Galdegaia markatzeko, [aditz laguntzailea + aditz nagusia] bezalako hurrenkerak erabiltzen dira bi eremuetan: *amak zuin altxatu aur ua ‘amak hazi zuen haur hura’* (Lar.), *orai or da bizi* (Uzt.), *hazpandarrek dute erranen hori* (Hazp.), *horiek nituen egun aipatu nahi...*

2.5. Lexikoa

Sail honetan ez dakart bi eremuetako lexikoaren analisi zehatzik, aurkezpen moduko bat baizik. Datu aberatsagoak beharko nituzte azterketa sakonagoetan sartzeko, baina nahitaezko ikusten dut lexikoaz zerbait esatea, kontuan izanik Ipar Euskal Herriko lexikoaren berezitasuna. Hasteko, esan behar da Hego Euskal Herriarekiko etena nabarmena dela lexikoaren alorrean, eta erdarek zerikusi handia dute horretan. Erdaren eragina erabakigarritzat jo du, adibidez, Ibon Sarasolak (1997: 8): “Bigarren mailako aldeak baztertuz gero, bi euskalki ditu gaur egun euskarak: Iparraldekoa bat, frantsesaren eragina nabari duena; bestea, Hegoaldeko euskalkia, errotik espainolaren mende dagoena”.

Ezin da ukatu aztertu dudan hizkeran –Ipar Euskal Herriko beste edozeinetan bezala, pentsatzen dut– pisu handia duela frantsesaren (eta lehena-go gaskoiaren) eragin lexikoak. Frantsesetik mailegatutako hitzek zerrenda luzea osatzen dutela ez da berria, baina azken aldian bada besterik ere: frantsesaren eraginez sortutako berrikeria asko sartu da¹¹, eta hori nabarmen-nabarmena da esapideetan eta hitz mailan, nahiz eta hortik kanpo ere badagoen. Hitzun arrunta ohartzan da horretaz, eta batek baino gehiagok esan dit bere mintzaira “frantsestua” kausitzen duela.

Lapurdiko hego-ekialdea joera nagusi horren barruan ikusi behar da, eta, horrenbestez, erkagai ditudan bi eskualdeek item multzo handi bat dute batera: maileguak. Hain zuzen batera dituztelako, ez ditut aipatuko hemen. Horietaz gain badira euskal jatorriko item eta aldaera batzuk, oro har Ipar Euskal Herriko hiztegiari dagozkionak (horiek ere ez ditut aipatuko hemen). Geolinguistikoki adierazgarriak iruditu zaizkidan aldaerak eta itemak bakarririk aipatuko ditut aurkezpen apal honetan, hau da, Lapurdiko hego-ekialdeko barne isoglosak agerian jartzen dituztenak.

¹¹ Adibidez, har dezagun *beti* aditzondoa: ohiko adieraz gain, beste esanahi honekin ere arrunt erabilia da: *emazte ua beti bizi da*. Aspaldi ezagututako emakume batez ari zen hor hiztuna, eta oraindik bizi dela esan nahi zuen. Frantsesaren kalko garbia da (fr. *toujours* ‘oraindik’).

ITEMAK

Larresoro	Hazparne
<i>aári</i> 'aharia'	<i>marro</i> & <i>abári</i> ¹²
<i>aitama</i> & <i>burráso</i> (pl.)	<i>aitama</i> (pl.) ¹³
<i>aixtúr</i> & <i>axtapur</i>	<i>aixtúr</i>
<i>alde</i>	<i>alde</i> & <i>eskualde</i> ¹⁴
<i>aóztu</i> & <i>agorri</i>	<i>agorri</i>
<i>apáiru</i> 'otordua'	<i>yantormu</i> & <i>apáiru</i> ¹⁵
<i>até</i> , <i>bórta</i>	<i>bórta</i>
<i>atea</i> (tu) 'atera'	<i>yali</i> & <i>ateatu</i>
<i>azántz</i> & <i>arróots</i>	(h) <i>arróots</i> ¹⁶
<i>bakár</i> & <i>bakótx</i>	<i>bakótx</i> ¹⁷
<i>bátto</i>	<i>báño</i> & <i>bátto</i>
<i>bereala</i> & <i>segidan</i>	<i>abian</i> & <i>behaala</i> & <i>segidan</i>
<i>eóki da</i>	<i>dóo</i> 'dago' & <i>eóki da</i>
<i>i(b)ili</i>	<i>eráili</i> & <i>i(b)ili</i> ¹⁸
<i>lau pataka</i> 'lau hankan'	<i>lau pataka</i> & <i>apozarka</i>
<i>matante</i> & <i>ttántta</i>	<i>ttántta</i> 'izeba'
<i>mertxika</i>	<i>tuáxa</i> & <i>mertxika</i>
<i>pitta</i> 'pixka'	<i>póxi</i> & <i>pitta</i>
<i>pláza</i>	<i>pláza</i> & <i>karkána</i>
<i>zato</i> , <i>zauzte</i>	<i>xauri</i> , <i>xauzte</i>

ALDAERAK

Larresoro	Hazparne
<i>ainána</i> 'enara'	<i>ainbéra</i>
<i>akiaazi</i> 'nekarazi'	<i>akitaazi</i>
<i>amorroin</i> 'amuarraina'	<i>amarrain</i>
<i>anéa</i> & <i>anáia</i>	<i>anéa</i>
<i>argi zirrínta</i> 'egunsentia'	<i>argi ttirrínta</i>
<i>arkána</i> 'arreske'	<i>arkála</i>
<i>armiarmo</i>	<i>a(r)miamau</i>
<i>armório</i>	<i>harméru</i>
<i>arrapostu</i> & <i>arraposta</i>	<i>arraposta</i>
<i>arróda</i> & <i>erróta</i>	<i>erróta</i>
<i>asiki</i> & <i>ausiki</i>	<i>ausiki</i>
<i>aztaborka</i>	<i>hazkaroka</i> 'oiloa'
<i>beinan</i> & <i>bainan</i>	<i>bana</i>
<i>béino</i> 'baino'	<i>báno</i>
<i>berdín</i>	<i>bardín</i>
<i>betérraua</i> 'erremolatxa'	<i>betárraba</i>
<i>bez</i> 'beraz'	<i>beaz</i>
<i>bólta</i>	<i>búlta</i>
<i>eltzáur</i>	<i>intzáur</i>
<i>hedói</i>	<i>hodéi</i>
<i>lukáinka</i>	<i>lukinka</i>
<i>ni(n)tzen</i>	<i>ni(n)tzan</i>
<i>oino</i> 'oraino'	<i>oóno</i>
<i>uzkáili</i>	<i>ixkúili</i>
<i>xikíroa</i>	<i>xikitja</i>

2.6. Bi eremuen arteko etena erakusten duten ezaugarriak

Larresoro aldeko eta Hazparne aldeko hizkerak bereizten dituzten ezaugarri markatzaileak dakartzat hemen laburbilduta. Kontrastea erakusten duten ezaugarriak bakarrik hartu ditut kontuan, eta bi sailetan antolatuta ditut: a) fonologia eta b) morfologia. Lexikorako, ik. 2.5. atala; bertan aurkeztu dugu bi eremuen arteko etena erakusten duten hitz batzuen zerrenda: alde batetik, item lexikoena, eta, bestetik, aldaerena (taula banatan).

a) Fonologia

[u + a] elkartzean *-uia* epentesiduna daukagu Larresoron, Haltsun, Uztaritzen, Ezpeletan eta Kanbon. Zuraidek mendebalera dituen herriekin bat egiten du, eta *-ua* bukaera erabiltzen da han, silaba bakarrekoetan izan ezik. Itsasuk, berriz, Hazparne aldearekin egiten du bat: *-üa* erabiltzen da Itsasun, Hazparden eta Lekornen, eta tarteko *-üia* Milafrangan.

¹² Bietan *marro* da erabiliena. *Abári* ez da guztiz arrotza, baina berriemaileak dio kanpotik etorritako artzainek-eta erabiltzen zutela Hazparne bertakoek baino gehiago.

¹³ *Burráso* arrotza ote den galdetu nion, eta esan zidan katiximari eta eliz testuei esker ez dela guztiz arrotza, *burráso* agertzen baita manamendu eta abarretan, baina hazpandarrek *aitamak* esaten dutela.

¹⁴ *Errautsa eskualde guzietan* 'hautsa alde guztietan' bezalakoak ohikoak dira Hazparden (Larresoron *errautsa alde guzietan*).

¹⁵ Bigarrena oso gutxi erabiltzen da.

¹⁶ Hazparden ez bide da erabiltzen *azántz*.

¹⁷ Esate baterako, lantegi bateko langile bakoitzak lau egun opor izango zituela esateko, *bakarrak lau egun* jaso nuen Larresoron (Hazparden *bakotzak lau egun*).

¹⁸ *Goizik erailki da* bezalakoak ohikoak dira Hazparden (Larresoron *goizik ibilki da* 'goiz dabil').

[u + i]	ingurunean (<i>ue</i> > <i>ui</i> bilakatuz), <i>u</i> hori palatalizatzen da, baina emaitza desberdinak ditugu eremu batean eta bestean: Uztaritzen <i>ui</i> & <i>iii</i> eta Hazparnen <i>ii</i> .
ie	hiatoa ez da asimilatzen Larresoro aldean; Hazparne aldean, berriz, sistematikoa da <i>ie</i> > <i>ii</i> .
o > u	Hazparne aldean indar handiagoa du sudurkari aurreko <i>o</i> > <i>u</i> ixteak.
ai	diptongoaren emaitza desberdinak ditugu bi eremuetan: Uztaritzen-eta <i>ei</i> daukagu; Hazparnen-eta indar handiagoa du <i>ai</i> > <i>ei</i> bilakaerak, eta <i>i</i> monoptongatua ere erabiltzen da <i>ei</i> horretaz gain.
au / ai	NOR-NORI saileko <i>-au-</i> erroa (orok. <i>-ai-</i>) erabiltzen da bi eremuetan, baina datiboa bigarren pertsona denean <i>-au-</i> & <i>-ai-</i> ditugu Larresoro aldean. Hazparne aldean, berriz, <i>-au-</i> besterik ez dut aurkitu.
/h/	Hazparne aldean hitz gehiagotan ahoskatzen da.

b) Morfologia

-er	Datibo pluraleko <i>-er</i> askoz ere maizago agertzen da Hazparne aldean Larresoro aldean baino (Itsasun izan ezik; hemen oso arrunta da). Larresoron-eta <i>-eri</i> da usuen agertzen dena.
gen.	Genitibo singularreko atzizkiari begira ez da uniformeoa Larresoro aldean: <i>-ain</i> dugu Larresoron, Zuraiden, Ezpeletan eta Itsasun. Uztaritzen, Milafrangan, Haltsun eta Jatsun, berriz, <i>-aan</i> da nagusi, Hazparnen eta Lekornen bezala. Kanbon biak entzun ditut.
erak.	Erakusle pluraletan, <i>hok</i> eta <i>hek</i> ditugu Hazparne aldean. Larresoron ez da erabiltzen <i>hok</i> , baizik eta (<i>h</i>) <i>auk</i> eta (<i>h</i>) <i>au(i)ek</i> (lehen absolutiboa eta bigarrena ergatiboa). Hazparne aldean ez dago absolutibo/ergatibo bereizketarik.
izord.	Pertsona izenordain indartuetan, bi sail erabiltzen dira Uztaritze aldean (<i>neoni</i> modukoena eta <i>nihaur</i> modukoena). Hazparnen, berriz, bigarren sailekoak bakarrik erabiltzen dira.
ukan	Larresoro aldean aditz nagusi modura bakarrik erabiltzen da <i>ukan</i> ; Hazparne aldean (eta Milafrangan) aditz perifrasiatan ere erabiltzen da, <i>izan</i> -en lekuan.
xuketa	Larresoro alde osoa xukarik gabeko lurraldea da. Hazparnen haurrekiko hizkeran erabiltzen da (ez alokutiboa), eta emakumeekikoan, aspaldiko ezaguna baldin bada. Lekuinen, Lekornen eta Makean ere erabiltzen da xuka (azken bi herriotan ia emakumeen artean bakarrik). Luhuson ez da erabiltzen.
z- / d-	NOR-NORI orainaldian <i>z-</i> dugu Larresoro aldean; Hazparne aldean, berriz, <i>d-</i> .
* <i>eradun</i>	N-N-N sailean <i>*eradun</i> & <i>*-i-</i> erroak erabiltzen dira Larresoro aldean, datiboa hirugarren pertsona denean. Hazparne aldean <i>*eradun</i> da aukera bakarra.

- zki / zk** N-N-N eta NOR-NORI saileko pluralgileak *zki* & *zk* dira Larresoro aldean (*zk* datiboa hirugarren pertsona denean). Hazparnen horietaz gain *i* ere bada (baita Milafrangan ere).
- a?** Galderetako *-a* partikula ez da erabiltzen Uztaritze aldean (Karbon eta Itsasun izan ezik). Itsasutik ekialdera arrunta da.

ONDORIOAK

Orain arte ikusitakoak kontuan hartuta, ondorio hauek atera daitezke Lapurdiko hego-ekialdeko euskaraz:

- Lapurdiko hego-ekialdean mintzo den euskarak badu aski nortasun hizkera multzo bat osatzen duela adierazteko. Honetan zuzen ibili zen Bonaparte, Uztaritzeko eta Lekorneko hizkerak multzo berean sartu zituenez gero.
- Hego-ekialdeko mintzo honek lurraldez eremu zabala hartzen du, eta hizkeraren aldetik ez da erabat uniforme. Honetan ere zuzena da Bonaparteren banaketa, eremu oso horretan bi hizkera edo barietate bereizi baitzuten (Uztaritzekoa eta Lekornekoa).
- Uztaritzeko eta Lekorneko hizkerak bereizteko Bonapartek erabili zituen ezaugarriek (bietan egiten da *ua > uia*, baina Uztaritzekoan ez dago ez galderetako *-a* morfemarik eta ez *ukan* eta *izan* aditzen arteko bereizketarik, eta Lekornekoan, berriz, bai) muga markatzen dute bi hizkera hauen artean, baina ez dira hizkera honen bereizgarriak, aldame-neko beste hizkera batzuetan ere betetzen direlako, Beskoitzen¹⁹, esate baterako.
- Nik ikusitakoaren arabera, 2.6. puntuan bildu ditudan ezaugarrietan oinarritu behar dugu eremu oso horretan bi hizkera –eta ez bakarra– direla baieztatzeko. Hitzunen kontzientziaren arabera ere bi hizkera daude hor.
- Hala ere, eta ohi denez, hizkeron arteko muga lausoa da batzuetan, eta ezaugarri batzuen hedadura ez dator bat Bonapartek finkatu zituen bi herri-bilguneekin. Azken batean, 1850-70 bitarteko egoerari dagokio haren sailkapena, eta bistakoa da ordutik hona aldaketak izan direla.
- Nabarmentzekoa da Itsasuk Hazparne aldearekin bat egiten duela zenbait ezaugarri markatzailetan (adibidez, *ua > uia* bilakaeran, datibo pluralerako *-er* atzizkian eta galderetako *-a* partikulan). Ekialde osokoak diren ezaugarri horiek Hazparne aldean eta Itsasun betetzen dira, baina ez dira mendebalerago hedatu.

¹⁹ *Buruia, galduia, kexuia* (...) bezalakoak erabiltzen dira Beskoitzen (Duhau 2003), eta bai galde perpausetako *-a* morfema eta bai *ukan* (aditz nagusi gisa nahiz aditz perifrasietan) arruntak dira. Nahi adina adibide dator Henri Duhau-ren lanean:

-a: ez zena, amets, gure izorratzerat jina? ‘ez al zen, kasualitatez, gu izorratzera etorria?’ (296); *ba-deia betikoa?* ‘betirako al dago?’ (301); *baduka jartzekoa?* ‘eserlekurik ba al duk?’ (302); *ez duka deus gisagokorik?* ‘ez al duk ezer egokiagorik?’ (303); *ikusia duka, aspaldi?* ‘ikusi al duk aspaldi honetan?’ (310); *ari zireia karraskan?* ‘ari al zarete karraskan [lanean]?’ (331); *baduzueia berririk?* ‘ba al duzue berririk?’ (332)...

- ukan (226): *haurra ukan* ‘erditu’; *ukanen duk* ‘lortuko duk’; *luzamena ukana dik* ‘luzamena lortu dik’; *ez zian xantzarik ukan* ‘ez zuen suerterik izan’; *tiro batez hiru erbi hil ukan ditiat* ‘tiro batez hiru erbi hil izan dizkiat’; *ez zakala uste ukan holakorik* ‘ez ezak uste izan horrelakorik’; *nehork uste ez ukantik ere* ‘inork uste ez izanik ere’...

- Gisa berean, Lapurdiko hego-mendebaleko hizkeraren eragina sumatzen da Zuraiden: *ua* > *uia* ez da sistematikoa (*ua* gelditzen da batzuetan), *emanen tz(a)itut* ‘emango dizut’ bezalakoak ohikoak dira, eta ekialderago zenbait adizkitan sistemaz gertatzen diren soiltzeak (*ai* > *i* eta *au* > *u*) aukerakoak dira (nahiz forma soilduak nagusitu): *niz* & *naiz*, *zitut* & *zaitut* eta *nu* & *nau*, *nuzu* & *nauzu*.
- Hizkeren artean trantsizio guneak dauden froga besterik ez dira Itsasu eta Zuraide, eta, hizkera multzo honen kasuan, argi gelditzen da mintzo batetik besterako jauzia era mailakatuan gertatzen dela, arrazoi geografikoak, gizartezkoak-eta tartean direla.

BIBLIOGRAFIA

- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984, 1990, *EAL. Euskalerriko atlas etnolinguistikoa*, (2 liburuki), Donostia.
- ARIZTIA, M., 1982, *Amattoren uzta (La moisson de grand-mère)*, Elkar, Lizarra.
- BONAPARTE, L. L., 1863, *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres.
- , 1866, *Formulaire de prône en langue basque, conservé naguère dans l'église d'Arbonne; réédité sans aucun changement et suivi de quelques observations linguistiques sur les sous-dialectes bas-navarrais et navarro-souletins de France et d'Espagne*, Londres.
- , 1869, *Le verbe basque en tableaux...*, Londres.
- , 1991, *Opera Omnia Vasconice*, [J. A. Aranak prestatua], Euskaltzaindia, Bilbo.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- DIRASSAR, J. B., 1995, *Hegiko bordatik*, Elkar, Donostia.
- DUHAU, H., 2003, *Beskoitzeko euskara (bigarren partea)*, Akoka, Donibane Lohizune.
- EUSKALTZAINDIA, [EHHA] *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*, Argitaragabea.
- GAMINDE, I. & SALABERRIA, J., 1997, “Ezpeleta, Lekorne eta Makeako azentu ereduez”, *Uztaro*, 20, 93-103.
- GIMET, R., 1950, “Le kostatar. Dialecte basque de la région de St-Jean-de-Luz. Étude d'une prononciation personnelle”, *EJ*, IV, 221-250 eta 393-424.
- GUITER, H., 1973, “Atlas et frontières linguistiques”, in G. Straka / P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux*, Paris, 61-109.
- HUALDE, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, ASJU-ren gehigarriak 42, EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.
- IRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 ale), Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*, Euskaltzaindia & EHU, Iruñea.
- , 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental (estudio dialectológico)*, Euskaltzaindia & EHU, Iruñea.
- LAFITTE, P., 1995 [1944], *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire). Édition revue et corrigée*, Elkar, Donostia.
- LAFON, R., 1980 [1944], *Le système du verbe basque au XVII^e siècle*, Elkar, Donostia.
- MONTOYA, E., 2002, *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*, (EHUko doktore tesi argitaragabea).
- OIHARTZABAL, B., 2002, “A propos d'un usage prédicatif particulier des pronoms personnels intensifs en basque”, in M. Aurnage & M. Roché (arg.), *Hommage à Jacques Allières (I). Domaine basque et pyrénéen*, Atlantica, Angelu, 235-246.
- ORPUSTAN, J. B., 1984, “Les maisons médiévales du Pays Basque de France”, *BMB*, 104, 121-176.
- PAGOLA, R. M. et alii, 1999, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: mendebaldeko behe-nafarrena*, DEIKER & Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
- PEILLEN, T., 1998, *Les emprunts de la langue Basque à l'occitan de Gascogne*, UNED, Madril.

- SALABURU, P., 1984, *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia*, (2 ale), Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- SARASOLA, I., 1997, *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Irun.
- SAROÏHANDY, J., 1924, "Le basque de Sare", *Annuaire du Collège de France*, Paris.
- VINSON, J., 1907, "Spécimens de variétés dialectales basques", *RIEV*, 1, 627-633.
- ZUAZO, K., 1998, "Euskalkiak, gaur", *FLV*, 30, 191-233.
- , 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun.
- , 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

LABURPENA

Lapurdikoko hego-ekialdean gaur egun egiten den euskararen kokapen geolinguistikoa buruz joateko abiaburu bat eskaintzen da lan honetan. Funtsean, Bonaparte printzeak mendebaleko behe-nafarreraren Lapurdiko azpieuskalkian sartu zituen bi hizkerak izan ditut aztergai: Larresoro eta hau inguratzen duten herrietako hizkera Hazparneko eskualdekoarekin alderatu dut. Eredu zabal hau ez da erabat uniforme, baina aldeak ez dira bat-batekoak, Uztaritze-Zuraide-Ainhoa lerrotik Nafarroa Behereko muga bitartean era mailakatuan aldatzen da.

RESUMEN

Este artículo pretende dar un punto de partida para la interpretación geolinguística del vasco actual del sureste de Labourd. Consta de un estudio comparativo entre la variedad de la comarca de Hasparren y la variedad de Larressore y los pueblos circundantes. Se han tomado como muestra las dos variedades que el príncipe Bonaparte incluyó en el subdialecto bajonavarro occidental de Labourd. Esta zona no es completamente uniforme, pero hay que destacar que las variaciones suceden gradualmente desde la zona de Ustaritz-Souraïde-Ainhoa hasta la frontera bajonavarra.

RÉSUMÉ

Cet article cherche à créer un point de départ pour l'interprétation géolinguistique du basque actuel de la vallée de Labourd. Il se compose d'une étude comparative entre la variété de la contrée de Hasparren et la variété de Larressore et des villages voisins. Pour le démontrer on a pris comme exemple les deux variétés que le Prince Bonaparte a inclus dans le sous dialecte de la Basse Navarre occidentale de Labourd. Cette zone n'est pas complètement uniforme, mais il faut souligner que les variations ont lieu de façon graduelle de la zone de Ustaritz-Souraïde-Ainhoa jusqu'à la frontière de la Basse Navarre.

ABSTRACT

This article aims to provide a starting point for a geo-linguistic interpretation of the Basque language currently used in the South East of Labourd. It consists of a comparative study of the version from the Hasparren district and that of Larressore and surrounding villages. The two varieties that Prince Bonaparte included in Labourd's Western "Basse Navarre" (Lower Navarran) sub-dialect are taken as samples. Although this area is not completely uniform, it should be pointed out that the variations are gradually accumulated from the Ustaritz-Souraïde-Ainhoa area to the "Basse Navarre" (Lower Navarran) border.